



Abel BARRIOLA:

Leitzako pilotaria

Duela hilabete sinatu zuen Altirekin bere lehen kontratu profesionala 19 urteko atzelariak. Halere, «*ilusio ikaragarria*» baldin badu ere, oraindik ezin izan du debutatu, «*eskuko arazoak medio*». Pilotari profesionala izateak ez dio itsutu eta «*urtean bizpahiru asignatura eginez*» karrera bat ikasteko asmoa azaldu du. **28**

6 Iritzia: Ilargia eta tenporak

Eguraldian, landareetan edo gure gain izan dezaketen eraginari buruzko iritzia eskatu diegu Lesakako biologa bati, goizuetar eta zubiatar bati.

27 Kultura: San Juan gaua

Ohiturak aldatu badira ere, oraindik ez du bere lilura galdu.


TTIPI-TTAPA honekin batera:

Doneztebeko bestak

Gehigarria erdialdean.


Etxetik Plazara

IKAko euskaltegiek argitaratzen duten aldizkari didaktikoa.



Bi kolore familia bakarrean

Maitasunak mugarik ez duela gauza jakina da. Batzuetan itsasoaren mugak zeharkatzera ere bultzatzen du. Oraingo honetan, beraien bikotea Latinoamerikan ezagutu duen jendearengana jo dugu. Ezkondu, batzuk familia osatu eta bertan bizi dira orain. Eguraldia da sumatu duten aldaketarik haundiena eta «*goitik behera begiratu bai, baina arrazakeriarik ez*» dutela nabaritu diote. Beraien esperientziaren berri eman digute, inolako problemarik gabe.



BERTIZ AVENTURA

BERTIZ ATERPEA

Telleria etxea • NARBARTE • ☎ 592116

• Albergea

- Aparkalekua
- Ostaturia eta jangela
- Jokuen gela
- Banaka edo taldekako logelak
- Dutzak eta komunak
- Tailer eta gaueko ekintzak
- Abenturako aktibitateen erreserbak

• Kafetegia

- Plater konbinatuak eta bokatak
- Umeak egoteko toki paregabea:
Jokuak, frontoia, futbolina, billarra

• Aktibitateak

- Zaldiak
- Rafting-a
- Eskalada
- Ibilaldiak
- Mendi Bizikleta
- Piragua
- Kainonak
- Puenting-a



☎ 592322

Bidasoa Kultur Zerbitzuak



PVC LEIHOAK



Erakusketak:

- Luis Mariano • IRUN
Tfnoa: 943 - 62 58 88
- PRYCA Merkatal Zentrua • OIARTZUN
Tfnoa: 943 - 49 25 97

UTZI ZURE ETXEAREN ZAHARBERRITZEA
EGIAZKO ESPEZIALISTEN ESKU



GAZTAÑAGA

ATEAK eta LEIHOAK





Latinoamerikatik gurerera ezkonduak

Oporretan Latinoamerikako herrialderen batera edo Karibeko irlaren batera joan eta bertako batekin maitemintzea jende aunitzi gertatu omen zaio. Bertze batzuk biak oporretan edo biak lanean zeudela ezagutu zuten elkar. Gero, harreman hori sakondu eta honara ezkondu direnak ere badaude. Honek zer erranik sortzen du hemengo jendearen artean: 'Han ligatzea errexka duk' edo 'pobrezia dela eta, handik ateratzeko esperoan daude' aditu izan dugu sarritan. Amerikar hauen ustez, aldiz, 'han jendea irekiagoa' da eta 'bertatik ateratzeagatik balitz, Estatu Batuak hau baino aberatsagoa da eta askoz hurbilago dugu'. Kolore ezberdineko, kolore biziko, bikote hauen esperientzia bildu nahi izan dugu.

TESTUA: AITOR AROZENA
ARGAZKIAK: KARMELE TOLOSA

gehienek eguraldian sumatu dute aldaketarik haundiena honat etortzerakoan eta ez dute eurria eta hotza batere maite. Eguraldi bero edo epeleko herrialdeetakoak dira, gehienez ere bi urtaro dituztenak eta ez dute ongi laketzen hemengo neguetan. Halere, batek baino gehiagok onartu digunez, «berokia edo abrigoa jartzeak ere badi bere xarma».

Eguraldiaren aferak ere ustekabeak ekarri dizkie. Mari Cruz Jimenezen herrialdean, adibidez, Panaman, goizeko betatik arratsaldeko betara iza-

ten dute eguzkia eta hemen, udaldeen, gaueko 10ak jo eta oraindik argia izatea arraroa iruditzen zaio. «Behin senarraren lankide batzuekin solasean gelditu eta konturatu gabe orduak joan zitzaizkidan. Ordularia begiratu nuenerako hamarrak ziren. Etxera ailegatu eta a zer nolako aurpegia jarri zidan Danik» dio. Veronica Luna Victoria peruarri «familia eta nere jendea» falta zaio.

«Eguzkia» erantzuten dute ahobatez Zeze Pereira eta Xanta Souza brasildarrek, zer falta duten galdetzerakoan, «baita familia eta lagunak ere». Beraiek dira gure artera beranduen ailegatu direnak eta hizkuntzarekin ere badute

oraindik problematxoren bat. «Portugesana eta espainola berdintsuak dira, baina zenbait hitzen erranahia, guztiz alde-rantzizkoa da» dio Xantak. Euskaraz ere hitz gutti batzuk erraten dituzte biak, nahiz eta arrunt zaila iruditzen zaien: «Bai, ez, eskerrik asko eta gero arte» diote irriz, brasildar azentu bereziarekin.

M^a Cruz panamarra euskara ikasten ere saiatu da, Bortzirietako euskaltegian. «Zaila da, baina hagitz polita. Momentuz, bertze lehentasun batzuk ditut eta utzi egin dut, baina berriz hasiko naiz, seguru!». Gainerakoek, beraien seme-alabekin ikasiko dutela uste dute.

Bere herrialdeko klima ez baina «musika, dibertitzeko modua eta jendearekin dantza egitea» bereziki gogoratu ditu Jorge Velez kolonbiarrak. «Eta jaki berxiren bat, badakizu, amak bezala ez du inork janaria prestatzen...».

«Jendea itxiagoa da hemen»

Jendea ere arras ezberdina dela uste dute latinoamerikar hauek. Izakeraz hango jendea irekiago dela uste du M^a Cruzek. «Han neska batek ez ditu sekula ate guztiak ixten, sexurako ez bada, telefonoak trukatzeko, solasaldi baterako, erromantze baterako... guttitan erraten dugu, 'alde hemendik!'. Hemen aldiz...». Jorge-ren ustez ere, «hemen jendea itxiagoa da, gehiago saiatu behar duzu pertsona baten alderdi batzuk ezagutzeko, baina horietara iristen bazara, pertsona hori benetan ezagutzen duzu, sakonago». Bi brasildarren ustez, berriz, «hemengo jendea hagitz ona da».

Ligatzera joanak?

Betiko topikoa izaten da hemengo mutiak ligatzera joaten direla oporretan Hegoameriketara. Danielek dioenez, «hemen dugun kareta -irakaslea, lan-

gilea, serioa- kendu egiten dugu oporretara joaterakoan, gu ere irekiagoak gaude, baina ni ez naiz ligatzera joaten, ni leku ezberdinak ezagutzera joaten naiz». Joxelo Etxeberriaren ustez ere, «bada denetik. Bada emakume bila joaten den jendea, baina eraberean, ezagutzen dut hemen bikotea izan eta Kuba edo Brasilerara joan eta harreman hori errespetatu duen jendea. Hori pertsona bakoitzaren araberakoa da».

«Arazakeriarik ez dugu


sumatu»

Mari Cruzek ez du arazakeriarik sumatu berekiko. «Beguratu bai, begiratzen zaituzte, baina ez dira meziprezu begiradak, ez zaituzte besoaren gainetik begiratzen. Hagitz tratu ona jaso dut hemen eta ez dut inolako kezarik. Hortan, Daniren lagun koadrilak ere la-



M^a Cruz Jimenez (Panama) eta Daniel Perez (Bera)

Danik oporrak bukatzeaz eta M^a Cruzek hasteko puntuan zituela ezagutu ziren 1994an Costa Rican, autobus batean. Urtebetez kartaz harremanatu ziren eta iazko abenduan ezkondu. «Nik ez nuen inoiz erranen Espainiara etorriko nintzenik-dio M^a Cruzek- Aldegiteagatik balitz Estatu Batuak hurbilago ditugu». Aldaketa handienak kliman eta «horren eraginez, pertsonengan» sumatu ditu panamarrak. «Han bi urtaro bertzerik ez ditugu, hemen lau. Eguraldia hotzagoa denez, jendea gehiago elkartzten da beraien etxeetan, han berriz jende guzia kanpoan dago eta harremanak karrikan izaten dira».



Jorge Velez Sossa (Bucaramanga, Kolonbia) eta M^a Jose Ara (Bera)

Hemen kontaktzen ditugun esperientzien artean berexia da bikote honena. Lehenik neska delakoz hemengoa. Gero, biak Londresen ingelesa ikasten ari zirela elkar ezagutu zutelakoz. Azkenik, Berarat etorri baino lehen, bi urtez Londresen eta ia sei urtez Bogotan bizitu zirelakoz. «Birik suertea izan dugu, Bogotan lan ona topatu zuen M^a Josek eta ni orain lardinen ari naiz lanean» dio amona bizkaitarra zuen kolonbiarrak. 5 urteko Ainar eta 5 hilabeteko Julenen gurasoek diotenez, «neska aitaren aldera aterata da eta mutikoa berriz, amaren aldera: soziedade edo sagardotegietako morroxko tipikoa dirudi».



Veronica Luna Victoria (Trujillo, Peru) eta Joxeluis Irurzun (Lesaka)

Trujillon oporrak pasatzen ari zela ezagutu zuen Veronicak Joxeluis, neskaren izeba baten etxean. «Halere, hasieran ez nuen honat etortzeko asmorik, ez nuen uste harremana horrenbestearino ailegatuko zenik». Ederki gogoratzen du Lesakara iritsi zen eguna, «1995eko abuztuaren 17a». Geroztik ezkondu eta seme bat izan dute, Josu, urte erdia bete duena. Ez du euskara estudiatzen jartzeko asmorik, hori bai «laister nere semearekin ikasiko dut». Bera kostaldekoa izanik ez omen zuen inoiz hemengoa bezain paisai ederrik ikusi, «dena berdea, zuhaitzez bete, benetan zoragarria da».

Hemen bizi diren latinoamerikarrek biltzeko proposamena ere luzatu du Jorge Velezek. «Hemen afa-rietan biltzeko ohitura haundia dago eta nik ere, lerro hauen bitartez, urtean behin horrelako zerbait egitea proposatu nahiko nieke hemen bizi diren latinoamerikarrei. Elkar ezagutzeko festatxo bat, bederen. «Gainera, bertako jendeak ere hobeki ezagutuko gaitu».



Afalondoetan egiten diren eserialdiak ez dituzte aguantatzen, logalea saiatu zait hainbat orduz mahai inguruan egonda. Han egiten dugu.

M^a Cruz Jimenez (Pa

gundu du» dio panamarrak. Iritzi berekoa da Gabriela Rodriguez Talancon mexikarra. «Agian aspaldidanik lagun euskaldunak ditudalako, baina ez dut begirada arrarorik sumatu».

«Nik ere ez dut nabaritu—dio Jorgek—. Hasieran bitxo arraroa nintzen, inoiz ez baitzuten kolonbiar bat ikusi, baina orain ez». Halere, etiketak hor daudela onartzen du: «Non-goa zara? kolonbiarra. Hurrengo galdera: Non duzuko-kaina? Inor ez da kafeaz, lo-

reetaz, esmeraldaz edo petroleoaz oroitzen. Zuei ere gauza bera gertatzen zaizue: hegoalderantz zoazte eta non-goa? euskalduna, orduan ETA-koa».

Bi brasildarrak ere ez dira hortaz ohartu, baina Veronica peruarrak, ordea, arrazakeria zertxobait nabaritu duela dio. «Bada denetik, hagitz ongi tratatzen nautenak, nola nagoen galdetzen didatenak eta bertze batzuk goitik beheiti begiratzen nautenak... arrazakeri pixkat sumatu dut, bai-

na, ez zait batere inporta». Gure eskualdean gisa honetako bertze bikote aunitz badaudela badakigu, baina denak ezin sartu tarte honetan.

Bi munduren lotura

M^a Jose Ara beratarrak erran digunez, «herrien arteko elkartasuna landu behar da, izan ere, nork ez du senideren bat Ameriketara izar eta aunitz dirua eginda bueltatu dira. Zergatik ez ditugu hangoak onartu behar?».

Bi mundu, bi arraza, bi ikus-

pegi ezberdineko herrialdekoak izan arren elkarrekin aitzinera segitzeko erabakia hartu dute pertsona hauek. «Arraza ezberdineko pertsonen arteko atrakzio bat badago, zergatik ez?, nahasketak ere onak izaten dira» dio Gabriela Rodriguez mexikarrak. Daniel eta M^a Cruzen ezkontz-gonbidapenean ageri zen bezala, «Ameriketako Zubiak (Panama) Iparraldea eta Hegoaldea lotzen ditu. Guk bi kultura, bi kolore, bi pentsamenduren lotura izan nahi dugu».

Herrialdeak ez du pertsona onartu behar, baizik eta pertsona horrek herrialdea, den bezala, onartu. Norberak aukeratzen du zenbat integratu, zenbateko lotura izan.

M^a Jose ARA (Bera)



Gabriela Rodriguez (Celaya, Mexiko) eta Tomas Lizartza (Leitza)

Baztango lagun batzuek—«Jauregitarrak»—Sanferminak ospatzera gonbidatu zuten Gabriela eta orduan ezagutu zuen Tomas. «Fletxazo bat izan zen». Bederatzi urte beteko ditu Leitza mexikarrak eta bi haur izan ditu, Xabier eta Izar. Nahiz eta urtero oporretan bueltatzen den Mexikora, «betiko lagunak eta familiaren falta» asko sumatzen du. Halere, hemen jendeak arras ongi tratatu duela dio eta «ez naut inoiz begirada gaiztorik egin, alderantziz». Eguraldian ere sumatu du aldaketarik. «Eguzkia falta zait. Nere herria beti udaberria da. Hemengo hotza, euria eta behelainoa ez zaizkit batere atsegin».

M^a Jose Pereira (Bahia, Brasil) eta Jose Antonio Leitza (Lesaka)

Zeze eta Abarkero—denak horrela ezagutzen dituzte Lesakan—azken honek Bahian pasatutako opor batzuetan ezagutu zuten elkar. «Maitemindu, eskutitz eta telefonoaren bitartez harremana sakondu eta duela urte eta bi hilabetez geroztik, hemen nago» dio Zezek, bi hilabete egin berriak dituen Denis semea sietara sartzen duen bitartean. Hemen «dena zoragarria» iruditzen zaio Parnaiba eskualdean sortutako brasildarrari eta honat etortzea «berriz jaiotzea bezala dela» us-te du. «Han ezin da hemen bezala bizi, gutziz ezberdina da Brasil. Orduan zer egiten duzu? ba honat etorri».

Xanta Souza Santos (Bahia, Brasil) eta Joxeluis Etxeberria (Lesaka)

Lau hilabete bertzerik ez ditu M^a do Amparok—hori da bere egiazko izena, nahiz eta Xanta deitzea nahiago duen—Lesakan. Bikote hau ere Bahian ezagutu zen, Joxelo oporretan zegoela, eta eskutitz eta telefonoaren bitartez elkarren berri jakin zuten. Brasilen ezkondu ondotik, Lesakara etorri ziren. «Datorren urtean oporretan bueltatzeko asmoa dut—dio Xantak—eta inguru eder hau nere ahizpari erakutsi nahi diot». «Lasaitasuna» da gehien atsegin duena. Ostatueta jendeak dantzatu beharrean tragoak hartu bertzerik ez egitea arraro iruditzen zaio. Izan ere, senide eta lagunetaz gain «o baile» falta zaio.

Hemen jendea garbiago mintzatzen da, erran beharrekoa aurpegiz aurpegi erraten dizute, itzulirik gabe. Batzutan txokatu egiten dizu baina horrela da.

Jorge Velez (Kolonia)



GAURKOTASUNEN GAIA

Ilargiaren eragina, tenporak...

Naturako zikloak ez dira beti konstanteak izaten



Pilarxo ALTZUGARAI
Biologoa. Lesakarra.

Norkez du ezagutzen eguraldia asmatzeko gai den bizilagunen bat edo senideren bat? Eta *asmatu* erraten dut, ez baitago inolako arrazoiz zientifikorik defendatzeko egun batean egiten duen eguraldiarekin hilabete oso batekoa iragar daitekeenik. Denok aditu dugu behin baino gehiagotan tenporak bete direla edo ez direla bete, zotal egunak horrelako urtetan arras ongi bete zirela... Baina, zu sinesdun horien artean bazaude, pentsa ezazu ea zergatik begiratzen diozun egunero irratan edo telebistan iragarritako eguraldiari. Edo, ez duzu inoiz egiten? Zientzia gartzeko lehen pausua behaketa dugu, eta gure inguruan gertatzen diren fenomeno meteorologikoen behaketa oinarritzen dira tenporak ere; baina ez da nahikoa. Naturan badago ziklikoki errepikatzen den fenomeno aunitz, baina zikloen iraupena ez da beti konstante izaten, eta nabardura guztiak kanpoan gelditzen dira. Hau dela eta, azken aurrerapen teknikoak erabilia ere, ez da erraza izaten eskualde bateko eguraldiaren iragarpena. Orduan, nola sinestu tenporatan?

Lehen garrantzi handia izaten zuen zer eguraldi eginen zuen jakiteak



Juana IBARRA
Zubitarra

Eguraldiari beti kasu handia egin izan zaio. Lehenago, gutti goiti beheki jakiten zen hurrengo egunean zer eguraldi eginen zuen, baina gaur egun atmosfera aldatua dago, eta baita jendea ere. Gizonak zerura begira ibiltzen ziren beti, nolako eguna eginen zuen esaten. Jakina, lehen azeitak eta lurrak ematen baitzuten janaria. Horregatik zuen horrenbertzeko garrantzia. Goizean goiti begiratu eta eguneko eguraldia jakiten zen, belarretara joateko... Gaez izarrak ikusi eta biharamonean eguzkia eginen zuela jakiten zen. Esaera zaharrei ere garrantzi handia ematen zitzaion; «goiz gorri, arrats euri» edo «arrats gorri, goiz eguraldi», «abenduko izarrekin eta ostatuko neska txarrekin behin ere ez fidatu»... Lehen erlojurik ere ez zen, hortaz, dena eguzkiaren laguntzaz egiten zen, itzalari begiratuta bagenekien arratsaldeko bostak zirela. Gaur erlojurik gabe ezin da deus ere jakin. Landareei dagokienez, beti-beti hilbeheran irindu eta biltzen ziren, eta landatu, berriz, edozein momentutan, baina nik beti hilbeheran.

Ongi eta luze irautea nahi bada, ilargialdi jakinean bota behar da arbola



Andres OLAIZOLA
Goizuetarra

Nire ustez, ilargiak zerikusi garbia du hainbat gauzatan. Esate baterako, egurra edo zura kontserbatzeko. Su-egurra, segun eta noiz botatzen den, denbora pasa eta ez da lehortzen, pisu-pisu egoten da beti. Eta berdin solibo edo mobletarako botatzen den zurarekin; ez lehortzeaz gain, pipiak aisa erasotzen dio. Ongi eta luze irautea nahi bada, ilargialdi jakinean bota behar da arbola. Hala nola, haritzarentzat, hiltzeko eta otsaileko hilbehera da egokiena, baita hosto koskadun beste arbolentzat ere. Hosto borobiltzua dutenentzat, berriz, bagoa eta haltza adibidez, hilberria. Dena dela, bada hemen bitxikeria bat: hilbeherako ostirala hilberri bezala da. Ilargiaren eragina argi erakusten duen beste gauza belarra da. Hilberri ebakitzen bada, errazago lehortzen da, eta, gainera, ez zaio hautsik egiten. Behi azpitik hilbeheran ateratzen duzun gorotza bera, beti heze-hezea egonen zaizu, hilberri ateratakoarekin gertatzen ez den bezala, hura berehala txukatzen baita. Gauza bera esan dezakegu zerria hil eta kontserbatzerakoan, hilberriko egunak bezalakorik ez baita.

Zuzendaria: Joxemanuel Irigoien. **Publizitatea:** Miren Karmele Tolosa. **Erredakzioa:** Aitor Arozena, Asier Gogorza, Joxemanuel Irigoien. **Administrazioa:** Amaia Goia. **Erredakzio taldea:** Pello Apezetxea, Juainas Paul, Kristina Boan, Bittori Telletxea. **Berriemaileak:** Joseba Azpiroz, Esteban Arozena, Juana Mari Saizar, Ainhoa Mutuberria, Iban Isasi, Txema Aldabe, Patxi Otxandorena, Ixabel Maia, Josune Etxebeste, Pablo Mendiburu, Joseba Algarabide, Alizia Olaiola, Margariti Etxenike, Koro Irazoki, Mixel Gerendiain, Jacqueline, Elixabet Iturria, Garbiñe Maiz, Oskar Txoperena, Pello Apezetxea, Aitor Arozena, Kristina Boan. **Kolaboratzaileak:** EHNE Nafarroa, Mikel Bezunartea, Joxe Javier Etxeberria...

Inprimategia: Graficas Ona. **ttipi-ttapa** ez du bere gain hartzen derrigorrez, aldizkarian adierazitako erranen eta eritzien erantzukizunik.

Erakunde Laguntzaileak: Bera, Leitza, Goizueta, Areso, Baztan, Urdazubi, Zugarramurdi eta Sarako udalak, Bortziritako Euskara Mankomunitatea, Malerreka Zerbitzu Mankomunitatea, Zugarramurdiko Akelarre Elkar-
te...



Aldizkari honek Nafarroako Gobernuaren laguntza jaso du

ARTEKARI TALDEA

ARTEKARITZA EKONOMIKO ETA LABORALA

LESAKA:


- Egunero, arratsaldeko 4,30etatik 8etara.
 - Asteazkenetan, goizeko 10etatik aitzinera ere bai.
- Non: MALDAERREKA S.L., Bittiria 6, Tfnoa: 63 74 04

IRUÑEA:

- Bulego Zentralean: ARTEKARI, S.L., Tfnoa: 17 55 40
- Non: Rioja Etorbidea 6, Atzekaldea Behean.

- Langile Autonomoak
- Nekazariak eta mendi langileak
- Nominak eta Aseguro Sozialak
- Lan-kontratutarako laguntzak
- Enpresa berri ezberdinen sortzea
- Diru-laguntza ezberdinak
- Kontabilitateak
- IVA eta IRPF
- Errenta aitortpenak
- Elbarritasun eta jubilazio espedienteak
- Bideragarritasun planak eta aurrekontuak

BOTA BERTSOA



Temporak eta ilargia

Mikel TABERNA (Bera)

Neurria: Hamarreko haundia

«Espainaldean elurte latza, kixkaltzen dago Frantzia»
telebistako gizonak nola duen korbata jauntzia, sinesten zaio itsu-itsuan erraten duen guzia.
Ba ote daki gaurko jendeak 'tempora'ren garrantzia?:
goialdeari erreparatuz artzaiaren zientzia.

Ilargiaren indarra ere nunbait sumatzen ote da? ilea moztu, arbola bota eta hainbertze afera: beharapena ta gorapena saiatu bereix hartzera.
Ni neone ere betea delik ez nauzu pertsona bera, gehiago ez dut erran beharrik, zuek kontuak atera!

Gure uhinetan Haizea nahi dugu

Haize frexkoa gure eskualdeko jende guztia sexu heziketan pertsona integralak bihurtzeko.
Haize beroa ginekologia zerbitzuak behar diren bezala hartzeko.
Haize mugikorra ahal dugun toki gehienetara eta jende gehienari aliegatzeko.
Haize sendoa denen artean (Nafarroako Gobernua, eskualdeko Udalak, Giza elkar-teak,...) zerbitzu iraunkor eta serioa mantentzeko.
Elkartasun Haizea Elizondoko F.O.S.H.K.ko langile eta gure irratiko kideen arteko lankidetzaz jarraitzeko.
Azken finean gure eskualdeak HAIZEA familia orientazio eta heziketa sexualerako zentroa behar eta nahi du.
HAIZEA indartsua betirako!!
Muxu haundi bat.

XORROXIN IRRATIKO KIDEAK



Askineko pista eta borda

Bi hitz esan behar dizuet ehiztarien gain solasean ibili zaretenei.
Askineko borda ehiztarien eta udaletxearen laguntzaz eraikia izan da. Ez da ehiztariena, munizipala da. Honek esan nahi du, herri guztiarena!
Ehiztariok eraiki dugu herriak

IRAKURLEAK MINTZO

erabili eta gozatzeko. Ez da ehiztarien baimena behar, borka hau erabiltzeko. Zuk, 5 hilabetez konpontzen egongo bazina, ez zenioke inolako oztoporik jarriko pista horri. Herriarendako egiten diren lanei buruz ez da oztoporik jarri behar, baizik eta eskertu, herriaren probetxuz baitira.
Pista honek etorkizun ona du nahiz eta orain ez iruditu (sua mozteko erabili ahal da eta mendiaren inguruan birlantatzeko ere balioko du).

Zuhaitzak hondatu direla diozu, eta nik galdetzen dizut, zenbat? Lau gehienez, zeren besteak berriro landatu genituen eta pista egina dago landaketei min guttien ematen ahal dien tokian. Bear-zana elkar-teko ehiztariak (zeinen lehendakaria naizen eta harro nago ehiztari guziez) beti egondu gara herriaren alde eta ez gure interesaren alde. Zenbat birlantaketa egin du elkarte honek? Ez dut inorekin eztabaidatu nahi, eta askoz gutxiago hemendik aurrera nirekin batera birlantatu behar duten gizonekin. Baina onartzen ez dudana pista bat ireki dela ehiztarien probetxurako bakarrik esatea da.
Pista bukatzen denean inork oztopatzen ez bagaitu zure familiarekin borda horretara eguna pasatzera joatea gustatuko litzaidake: Gogoko izango duzue. (Oharra: mundu guzia joateko pistak bukatuta egon behar du).
Borda hau herrikoa eta herriarentzat da nahiz ehiztariok borda konpontzeko diru asko gastatu dugun.
Bordataz eta pistaz gozatu eta orain gaizki ikusten ari zarena hemendik aintzina ongi iruditu zaizu. Besterik gabe, agurtzen zaituztet.

OHARRA:

Eritzi ezberdinek tokia izan dezaten, ez da komeni makinaz idatzitako 25 lerro baino luzeago idaztea gutun hauetan. Idatzi duenaren izen-deiturak, telefonoa, helbidea eta Nortasun Agiriaren fotokopia agertu beharko dira. Laburtu beharra izanez gero, **ttipi-ttapa**k bere esku izanen du horretarako eskubidea.
Ez dira argitaratuko beren nortasuna agertzen ez digutenen iritzirik.

RAFAEL ISASI

(BEAR-ZANA EHIZTARI ELKARTEKO LEHENDAKARIA)



E D A R I A K

MANUEL TABERNA S.L.

Bidasoa K / 82 - 31780 BERA (Nafarroa)
Tel.- Fax: 948. 63 10 27

BODEGAS ERRASTI, S.L.

Bodegas Gailur

ARABAR ERRIOXAKO ARDOAK
GETARIAKO TXAKOLINA

Zonarako banatzailea
TXOPORRO Ardoak

M. Azpilkueta, 6 • ELIZONDO

© 58 02 78

ttipi-ttapa

631188

Zure publizitaterik onena

 **Julen MITXELTORENA** LAB

Enplegu duinaren alde



C E O E, CEPYME, CCOO eta UGTk PP gobernua **reforma** baren adostatu du ten Lan E-

reforma salatu eta beuren kontra mobilizazioak antolatzen direnean, ez dugu uzten ahal gaitzestu gabe nola "erabiltzen" duten legedia eskualdeko zenbait udaletzek kontratuak egiteko orduan. Zehazki aipatu nahi duguna "colaboración social" kontra-

Kontratatzeko orduan edozein txantxuilo, laguntasun, edo bertze gehiegikeria salatzen eta holako praktikak mozteko, prest gaude edonorekin tinkotasunean elkarlanean aritzeko.

tua delakoa. Ez da berexiki hau zabor kontratua, baina honek ematen duen babes zabor kontratuarena baina kaxkarragoa da.

Baztan eta Doneztebeko Udaletik egin diren zenbait "colaboración social" kontratuak ohartu izan gara LABen. Gure ikuspuntutik kontratu horiek iruzkeriak dira.

Haietako batekin saiatu izan gara garaiz konpontzen, Doneztebeko liburu-zainarena hain zuzen, baina Udalaren aldetik ez zen kasu haundirik egin eta orduan LABek epaitegira jotzea erabaki zuen, Doneztebeko Udalaren kontra.

Doneztebeko Udalaren plantila organikoan agertu zen liburu zain lanpostua, lehiaketa-oposaketa-

ren bitartez betetzeko. Horri muzin egin zion Udalak, eta horrez gainera liburu zain postua plantila organikoak kentzeko erabakia hartu zuen Udalbatzak, aitzakia ekonomizistak aipatuz.

1984ko lan Erreforma egin zenez geroztik enpresek eta enpresazaleek errez izan dute gehiegikeriak egitea lan kontratoekin eta langileak txantxatzea, baina larritasuna ez da hor geliditzen: zenbait alderdi politikok eta sindikal ordezkariak ez dute aukerarik gal-

du lan prekaritate egoera honetan beuren "bazka" bilatzeko. Kasu batzuk aipatzearen CSIEraldatuak eta SAVERA inguruan egin diren hainbertze kontratu.

Gizarte batean enplegua atal serio bat dela iduritzen zaigu. Kontratatzeko orduan edozein txantxuilo, laguntasun, edo bertze gehiegikeria salatzen eta holako praktikak mozteko, prest gaude edonorekin tinkotasunean elkarlanean aritzeko.

Doneztebeko INEMeko arduradunei dei berezi bat egin diegu, langabeziari buruz izan dezaketen informazio pribilegiatua ez erabiltzeko erakunde edo norbaiten interesendako. Enplegu Udal Batzordeak izango balira kontratazioak egiteko orduan argitatu behar izango litzateke. LABetik, prest gaude batzorde hoietan parte hartzeko eta segur gaude bertze zenbait erakunde ere gustu onean laguntza emateko prest egonen direla.

 **José Luis ETXEGARAI** Lesakako alkatea

Komunitate-laguntzaz gure eskualdean



Nafarroako mendialdea baren hartzeko 2 eta 5B helburuak deituko

pako Ekonomi Elkartetik zuzendutako dirulaguntzak gero eta gehiago direla, hoiek hartzeko trahimiteen zailtasuna eta programa eta proiektuen prestaketa kontutan hartuta, mota ezberdineko elkarrekin jarraitu behar izan dute, ideia bideragarriren bat duen edozein bizi-lagunen interesak defendatu eta Udalak prest egon daitezkeen etengabe agertzen diren programa hoietan parte hartzeko.

Horrelaxe sortu zen CEDERNA-GARALUR elkarte, Nafarroako mendialdeko nekazal guneen integratze eta garapen bateratua bultzatzeko intentzioz. Elkarrekin honen barnean 96 udaletxe, 44 kontzeju, Aezkoa, Erronkari, Salazarako bailarak eta Sakana Mankomunidadea, zenbait langile sindikatu, erakunde profesionalak, elkarte kulturalak, kirol eta nekazal turismo elkarteak daude, eta baita Bertizko Patzuergoa bezalako entitate kolaboratzaileak ere.

Nafarroako iparraldeko biztanleriaren %90a osatzen duten 77.000 biztanle hartzen ditu, eta 4.900 Km tan hedatua dago. Udaletxe ezberdinetan jarraitzen lan egiten duten garapen agenteen bidez

funtzionatzen du, administrazio publikoarekiko edozein gestio egin nahi duten interesatuei ekintza mota guztiak lagunduz. Nere eritziz, aurrera eramane daitezkeen edozein ideia bururatzean agente hauengana hurbiltzeak pena merezi du. Cederna-Garalur honako komunitate-programa garrantzitsu hauetan lanean dabil:

-Nafarroako mendialdearen nekazal berrikuntza programa.

-Telelana, telematika eta enpresa-kudeaketan for-

Nafarroako mendialdeko nekazal guneen integratze eta garapen bateratua bultzatzeko intentzioz sortu zen CEDERNA-GARALUR

mazio plana (Remote). -Lan sorrerarako Erne proiektua, etab., etab.

Cederna-Garalur 1991an sortu zen eta orduztik Nafarroako mendialde guzian lan egiten du nekazal garapeneko proiektu eta programak lagundu, bultzatu, garatu eta kudeatzen, bertako errekurtsoren probetxamenduaz administrazio ezberdinak sentsibilizatzen saiatzen den bitartean.

Nere ustez, elkarrekin honetako jendearen behar guztiak asetzeko balio du, nekazal garapenari buruzko informazioa hartu eta ematen duen gunearen papeira eginez eta beste eskualdeetako metodologia eta esperientzien elkartrukea ahalbidetuz.



ARGIA 97-V-18

«Oraingo, behintzat, bertsolari bezala plazaz plaza ibiltzeko gogo badut, baina hamasei urte daukat bakarrik, ezin dut erran hemendik zortzi urtera zer egingen dudana».

Xabier TERREROS
Lesakako bertsolaria (Txapeldun Nafarroako Eskolarteko txap.)
Nafarkaria 97-VI-6

«Zerbait jokoan duten partiduetan aritzea gustatzen zait. Presio berezi horren azpian egotea atsegin dut, nahiz eta paliza fisikoa arras gogorra izaten den».

Iñaki Mtnez. LIZASO
Doneztebeko erremontelaria
Diario de Noticias 97-VI-11

◆ Lehengo bizimodua edo oraingoa?

◆ Lehengo lehengoentzat eta oraingoa oraingoentzat hobena.

◆ Gazte bazina zer egingen zenuke?

◆ Herri honeri erreboluzio bat emanen nioke, bertzeek utziko balidate.

◆ Nola ligatzen zen lehen?

◆ Herrian herrikoekin, apartekoak ezagutzen ez genituelako.

◆ Aholku bat gazteari?

◆ Elkarrengana bildu eta elkarriketa asko egin.

◆ Gaur joanen zinategi soldaduskara?

◆ Oraingo egoera ikusita, ez.

◆ Euskara maitatzeko, zer egin behar da?

◆ Ohartu eta ikasi, batez ere.

◆ Jubilatuen elkarte edo gazteen elkarte?

◆ Biek onak.

◆ Oraingo herriko bestak edo lehengoak?

◆ Guretzat lehengoak, jostatzen genuen nahi hainbertze.

◆ Ikusi duzun herririk politena?

◆ Berastegi.

◆ Pertsona baten kualitatetik hobereena?

◆ Maitasuna.

◆ Eta gustoko ez duzuna?

◆ Biraoa, hainbertze aditzen da!

◆ Kapritxo bat


◆ Ibilaldi bat Costa Ricara, arrebarengana.

◆ Heriotzaren beldur zara?

◆ Ez, nere ustez fedebizian bizi naizelako.

◆ Zenbat urte bizi nahi duzu?

◆ 90 urte bai, gure amak bezala.



Joxe URRUTIA
ARKUPEA Keko delegatua
Saldiastrarra

Beorlegi



LAN ARTISTIKOAK EGURREAN EGINAK

- ◆ **TAILA • TORNEAKETA • MARKETERIA** ◆
- NEURRIRA EGINDAKO MOBLEAK:
Baseri estilokoak, beste estiloen erreproduzioak, Diseinua.
 - Zaharberitze-lanak.
 - Zahar itxura akaberak.
 - Tapizeria.

◆ Telefonoa: 943 - 61 90 00 • **IRUN** ◆



Ostargi Optika

Bidasoa karrika, 8 • BERA • ☎ 948 - 63 07 53

PIKABEA

Moliner drogerian
galdetu

pinturak

**Etxe barneko hezetasun eta kondentsazio
arazoak moldatuko dizkizugu**

- Fatxadak
- Barne dekorazioa
- Pintura orokorrean

Izpoz 8 • ☎ 630240 - 631495 • **BERA**

ttipi-ttapa



631188

*Zure
publizitaterik
onena*

Eskola-liburuak debalde banatzea eskatuko dute Guraso Elkarteek

Horretarako sinadura bilketa egingen dute

Oinarrizko Hezkuntzan eskola-liburuak debalde izateko sinadura bilketa kanpaina bati ekin dio Herrikoa Guraso Elkarten Federazioak. Kanpaina hau Espainia osoan egingen da eta bere helburua sei hilabetetan 500.000 firma biltzea da, honela lege proposamena parlamentuan eztabaidatuko bailitzateke.

13.000 PEZETA URTEAN

Gurasoen asmoa, Lehen Hezkuntza eta Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako testu-liburuaren kostua administrazioak ordaintzea da. Izan ere, Lehen Hezkuntzako kurtso baterako, 8.000 eta 9.000 pezeta artean ordaindu behar dira eta ikasleak COU egin behar badu, kopuru hori 13.000 pezetara ailegatu daiteke. Derrigorrezko Bigarren Hezkuntza ezarri denetik, asignatura kopurua eta neurri berean, liburu kopurua biderkatu egin da.

Guraso Elkarten ustez, beraz, eskari hau guztiz justifikatuta da-



Su-hiltzaile boluntario berriak Bortzirietan

Argazkian ageri direnak, Bera eta Lesakako su-hiltzaile boluntarioak izateko ikastaroa egin duten gazteak dira. Martxoaren 15ean hasi eta hamar larunbatetan (50 orduz), bonberoi dagozkien betebeharrak ikasten aritu dira Oronozko parkean. Maiatzaren 31n, diplomak jaso zituzten Nafarroako Gobernuak lehendakariordearen eskutik. Leitzan eta Goizueta ere bukatu berri dituzte ikastaro hauek Leitza eta Altsasuko parkeetan. Leitzarrei mendirako ur-bonba bat eman die Nafarroako Gobernuak eta goizuetarrei, ur-bonbaz gain, Land Roverra.

Argazkia: LEGARRA

go, bai legearen alde-tik, baita pedagogia eta gizartearen arloetatik begiratuta ere. «Konstituzioan eta LOGSEan ageri denez, derrigorrezko hezkuntzak ez du inolako kostu ekonomi-

korik suposatu behar ikaslearendako eta guraso edo tutoreendako».

Herrikoak aurkeztu nahi duen lege proposamenaren 2. artikuluan ageri denez, «diru publikoaz sustengatutako

zentroetako testu-liburuak, zentru bakoitzak oinarrizko irakaskuntza emateko legalki aukeratu dituenak, dohai-nekoak izanen dira zentru horietan matrikulatutako ikasleentzat».

'Babesturiko Giza Lana' proiekturako langileak kontratatzeko deialdia egin du Bortzirietako Gizarte Zerbitzuen Mankomunidadeak

Bortzirietako Gizarte Zerbitzuen Mankomunidadeak, langile bat kontratatu nahi du Babesturiko Giza Lana izeneko proiektua aitzinera eraman dezan.

Lan kontratua sei hilabetetarako izanen da, lanaldi erdian-lau orduz-. Halere, ordu kopuruari dagokionez, aldaketarik izan daiteke.

BETE BEHAR DIREN BALDINTZAK

Giza Zientziak delakoekin harremanak dituzten profesionalak aurkezten ahal dira, hau da, gizarte langileak, edukatzaileak, psikologoak, pedagogoak eta gizarte egoitzapenerako teknikariak. Hortaz gainera, interesatuak euskalduna izan behar du eta automobila eta gidatzeko karneta ere beharko ditu.

ESKAERAK AURKEZTEKO EPEA ETA LEKUA

Eskaerak eta kurrikulumak aurkezteko azken eguna datorren ortzeguna, ekainak 26a izanen da, eguerdiko 12ak baino lehen, Bortzirietako Gizarte Zerbitzuen Mankomunitateak Etxalarren duen bulegoetan (Informazio gehiagorako 635036 telefonora deitu, Ramoni).

Azterketak, biharramonean egingen dira, ekainaren 27an.

Dia % Autozerbitzua deskontua

Hamabostero ofertak

Zatoz eta ikusi

Eztegara, 6 • ☎ 63 14 03 • BERA



Aranguren

Aroztegi mekanikoa

Tel.-Fax: (948) 63 72 58
Tel.mug.: 908 -77 51 85
Otsango industrialdea
31770 LESAKA

- Leihoak
- Aurre-markoak
- Eskailerak
- Fabrikanteak gara

San Juan bezperarako ospakizun berezia antolatu du Lamixinek

Leku Ederreko arbola magikora peleginazioa egingen dute

ASIER GOGORZA

«Leku Ederreko arbola magikora I. peleginazioa» izenarekin aurkeztu dute Lamixine BATekoek ospakizun berezi hau. Ekainaren 23an, Leku Edererraino erromesaldian joateko deia zabaldu dute eta San Juan bezperako ohi-turari lotuz, sua bixtuko dute han dagoen arbola magikoaren ondoren. Urte guzian zehar gertatu zaizkigun gauza txarrak paper batean idatzita eramatea eskatzen dute, halaber, Lamixinekoek. Urte hau hobeagoa izan dadin, paper hoiek sutan erreteko asmoa dute. Horretaz gain, peleginobakotxari itsasoko gatza (kilo bat baino guttiago), baratxuri korda eta kandela bana eramatea eskatu diote. Altxateko plazan elkartuko dira, arratsaldeko 7,30etan.

IGERILEKUAK

Bertzalde, egun hauetako sargoriak frexkatzeko behar genuena etorri da, joan den igandean ideki baitziren igerrilekuak. Sairera-bonak salgai daude, dagoeneko eta hauek esku-ratzeko Herriko Etxera jo beharko da. 16 urtez goitikoek 4.125 pezeta



Abialdian-97 futbol partidua

Gure Txokoa eta Beti Gazteko jokalaria Bortzirietako taldea osatzen alde batetik eta Irungo Real Uniongoak bertzetik, aritu ziren Abialdian-97, askatasunaren aldeko martxa girotzeko ekainaren 7an jokatu zen futbol partiduan. Guttienekoa emaitza zen (1-5 irabazi zuten 2.B mailako jokalaria zituen Irungo taldeak), norgehiagokaren xedea bi taldeek zelairatu zuten pankartan ageri baitzen.

ordaindu beharko dute denboraldi guzira sarreraren lortzeko, 3.300 hilabete baterako eta egunerokoa 475 pezeta. 10 eta 16 urte bitartekoei 1.650 pezeta gostako zaie denboraldi guzira, 1.200 hilabete baterako, eta 275 egunerokoa. Azkenik, 7 eta 10 urte bitartekoei 700 pezeta ordaindu beharko dute denboraldi osoko bonoa hartzeko, 650 hilabete osorako, eta 150 egun bakarrekota erosi ezker.

Antzerki eta Clown ikastaroak egingen ditu Lamixinek udan

Lamixine Berako Antzerki Taldeak antolatuta, bi udako ikastaro burutuko dira uztailearen 14tik 18ra.

Lehenengoa, antzerkian hasteko tailerra izanen da, 13 urte-tik goitiko neska-mutuei zuzendua. Hau, goizeko 10etatik Ietara burutuko da Kultur Etxean. Ikastaro honetarako informazio telefonoa 630722a da.

Bertzaldetik, Clown hastapeneko ikastaroa ere egingen da, 18 urte-tik goitikoek zuzendua. Ikastaro hau, arratsaldeko 6etatik 9etara burutuko da Kultur Etxean. Informazioa eta izen ematea 631293 telefonon.

Ikastaroak elkarte-ko monitoreek emanen dituzte eta izena emateko azken eguna uztailearen 6a izanen da.

flash

Euskal Presoak

Euskal herritarrearen aldeko Bortzirietako Herri Ekimena osatu dute 18 elkarte baino gehiagok. Helburua manifestaldiabat konbokatzea dute, uztailearen 5erako, presoengiza-eskubideak errespetatu eta legea bete dadin eskatzeko.

Agerra Mendi Taldekoek

Kandantxu-Formigal mendira irteera egingen dute igande honetan, ekainak 22. Autobusa goizeko 5etan aterako da Agerratik, eta 1.500 pta gostako da.

Maiatzaren 31n

Gazte Asanbladak antolatutako kontzertua euriarengatik suspenditu zen, eta akaso Berako bestetan egingen da Koma, Pilt, Vomito eta Ezpalen kontzertua.

Antzerkia

Donibaneko Begirale Elkarteak Antzerki Taldea etorriko zaigu ekainaren 27an, «8 amets eta kanturen bat» antzeslana aurkeztera. Emanaldia Kultur Etxean izanen da, arratsaldeko 8tan.

Gure Txokoako

bazkide karneta hartu nahi baduzu, bankuan dirua sartu eta justifikantearekin Iamoteneatik pasatu beharko duzu, astelehen batean, 8etatik 9,30ak bitartean.

FOTO GOIKO
Altxate 26
Tel.-Fax: 630515
BERA

GRUPO ZURICH
ASEGURO OROKORRAK
Itzea, 4 — BERA — ☎ 63 07 63

BOTXO ostatua
Tfnoa: 63 00 52
Zalain Auzoa, BERA

GOZOTEGI-JAONE
Altxate, 19 • 630786 • BERA

Urrezko Adina elkarteko bazkideen Anaitasun Besta ortziral honetan

Luis Ordoki eta Tomasa Otxotekoren Urrezko Ezteiak ospatuko dira egun berean

AITOR AROZENA

Ortziral honetan, ekainak 20, urteroko Anaitasun Besta ospatuko dute Urrezko Adina elkarteko bazkideek, egitarau zabal batekin.

Eguerdiko 12etan, Santiago Irigoienek zuzendutako txistulariak karrikaz karrika ibiliko dira. Ordu erdi beranduago, ongi-etorria eskainiko zaie agintari eta gonbidatuei erretiratuen elkartean eta txistularien laguntzaz elizara abiatuko dira, bertan Meza Nagusia aditzeko. Meza girotzeko, Guillermo Agara eta Larrane kantuan, Txoperena organua joz eta Santiago eta Rekon-do txistua jotzen arituko dira. Hauekin batera, Luis Olaetxea 'Makuko', Urrezko Adina elkarteko bertsolariak ere parte hartuko du. 2, 15etan Anaitasun bazkaria izanen da herriko frontoian. 4etan, Urrezko Ezteiak ospatzen duten senar-emazteei omenaldia eskainiko zaie. Aurten bikote bakarrak betetzen ditu 50 urte esposurik: Luis Ordoki eta Tomasa Otxotekok. Omenaldiaren ondotik, dantzaldia hasiko da Zeus taldearen eskutik. Erreserbak eta informazioa, CANen.



Ramon Bulto Nafarroako Gobernuako Industri kontseilaria eta CSiko direktiboak Lesaka, Zalain eta Legasako lantegiak bisitatu zituzten

Argazkia: LEGARRA

3.000 milioi pezeta inbertituko ditu CSIk Lesaka eta Legasako lantegietan

Datozen hamasei hilabetetan, teknologia berria sartzeko

Datozen hamasei hilabetetan 3.000 pezetako inbertsioak egingen ditu CSIk Lesaka eta Legasako lantegietan, enpresa honetako zuzendaritzak Ramón Bultó, Nafarroako Gobernuako Industria, Komertzio, Turismo eta Lan Departamenduko kontseilariari baieztatuz zionez.

Kontseilariarekin batera, Jesus Morrás, sail bereko jefek,

Antonio Diaz-Guardamino, CSiko zuzendari orokorrak eta Miguel Fernandez zuzendari ordeak, Zalain, Lesaka eta Legasako lantegiak bisitatu zituzten ekainaren 10ean.

ELEKTROGAILUEN MERKATUA BILDU

Inbertsio berriekin teknologia aurreratuak sartu nahi dira. Lesakan galbanizatze-lerroa moldatuko da, kaliteta

hobetzeko eta mozketalero berri bat sortuko da, altzairuzko txapa mozteko kapazitatea haunditzeko. Legasan, berriz, pintura-lerroa zabalduko da, modu honetan, kalitatea eta abiadura hobetuz.

Inbertsio hauen helburua, «azken urteetan lantzen ari garen elektrogailuen merkatua gure gain biltzea da» CSIk zuzendaritzaren arabera.

flash

Medikuntza alternatiboari

buruzko solasaldia burutuko da ortzegin honetan, ekainak 19, arratseko 8etatik aitzinera Kasinoan. Lesakako Herri Eskolak antolatutako ekitaldi honetan, Eneko Landa-buru higienista eza-guna izanen da hizlari.

Bortzirietako futbito txapelketaren

finala jokatuko da larunbat honetan, arratsaldeko 7etatik aitzinera. Ordubete lehenago, 3. eta 4. posturako norgehiagoka jokatuko da. Hama-hiru taldek parte hartu dute aurten Beti Gaztek antolatutako txapelketan.

Maistegi udal futbol-zelaia

Oraindik erabat zehaztu gabe badago ere, badirudi abuztuaren 9a aukeratu dela Maistegi izena hartuko duen udal futbol zelai berria ofizialki inauguratzeko. Belar artifiziala jarri gabe badago ere, hau idazterakoan, itxura ederra hartzen ari da, harmaila eta guzi.

XATURETXEA

JATETXEA
 Tfnoa: 63 70 27 LESAKA

INAXIO JANARIDENDA

 Igandetan 9etatik 13etara irekia
 ASTERO eskeintza bereziak
 Plaza Zaharra, Tfnoa: 637059 - LESAKA

KATTU
 ostatu - jatetxea
 Plater konbinatuak eta menuak
 ☎ 627573 • LESAKA

Deñe
 LENTZERIA
 MERTZERIA
 Tfnoa.: 62 75 14
 Beheko Plaza 8, LESAKA

Karrikatik Sarako mugarainoko errepidea zolaberrituko dute

Karrika zeharkatzen duen zatian, zoladura zaharra kenduko dute lehenbizi

PELLO APEZETXEA

Iturriozko edo Landaburuko zubitik hasi eta Lizarietarainoko errepideari zoladura berria emanen diote. Karrikaz kanpoko bidean, lehengoaren gainean botako dute, baina karrikako zatian ez; lehenik zoladura zaharra kenduko dute, karrikaren altuera haunditzen joan ez dadin.



Artisauen lana ikusi ez ezik arto opilak dastatzeko aukera izan zen Feria Egunean. Ezkerraldean Gasna Ferian saritutakoak: irabazleak ez zuen saririk bildu, beraz bigarren sailkatua eta lehen etxalartarra ageri dira argazkietan

Argazkiak: Pello

Gasna Feria

Gasna Feria arrakastatsu gertatu zen. Gasna lehiaketa, artisauak, saltzaileen mahaiak, eskolako herriarren eskulanean erakusketa, plazako bazkaria, bertsolariak, eta eguraldi ederra: osagarri horiekin, nahitaez, egun atsegina bilakatu behar. Ibili zen, bai, jendea. Bazkaltzeko ere ehunetik goiti bildu zi-

ren. Gasna Lehiaketan 16 gasnak hartu zuten parte, Baztango 5ek, Malerrekako 5ek, Berako 1ek eta Etxalarko 5ek. Lehenbiziko saria Elbeteara joan zen,

Autxitiako Mertxe San Vicenterengana. Bigarrena, Lekarozko M^a Victoria Arrastoak jaso zuen. Hirugarrena, berriaz, Arizkungo SAT-AMAIUREk eskuratu



Mendiko bideak konponduko dira

Oihan probetxamen-durako zenbait bide moldatuko dira, hala nola, Orizki-Irazako-Orementa, Lakateneko Borda-Marimigeleneko Borda, Urtsumiatsa-Burrarte-Lekunberri, Ozkaritz-Zabaleta. Bide berriak ere irekiko dira: Aierdin, Txori-markailen, Perukineneko Borda-Behekozubiko Borda-Egillunen.

Aurten ere dantza ikastaroa hasi da

Astean behin, bi orduko saioz, hasi da dantza ikasteta. Nafarroako Gobernuak eta herriko Udalak lagundua bada ere, ikasleek ere ordaindu dute matrikula. Andre marietan fruituak ikusteko aukera izanen dugu, behar bada.

IRU BIDE
ERRETEGIA

Tfnoa: 637127
LESAKA

ZALAIN
JATETXEA

Zalain Auzoa
☎ 63 11 06
BERA

EGUNEKO MENUA ETA KARTA

Boda eta banketeak ematen dira

SAROBE
okindegia

SANDERS Pentsuak

Eztegara 41, Tfnoa: 63 08 99 - BERA

koxkonta

Sagardotegia zabalik

Deitu erreserbak egiteko

Otsango auzoa, Tfnoak: 627503 / 627519 • **LESAKA**

HERRIKO OSTATUA
Jatetxea

Ikasturtea otordu eder batekin bukatu nahi duzula?

☎ 635290
ETXALAR

ASTEARTETAN ITXITA

Menu eta prezio bereziak irakasle, ikasle eta gurasoentzat
Deitu lasai ederrean!

Astegunetan afariak aurrez eskatuta bakarrik

KOXKILA OSTATUA

Zarandia, 4 - **LESAKA**

IGANTZI

Gain-gainean dugu San Juan Xar eguna

Hasia da Biltokik antolatutako aurtengo pala txapelketa


OSKAR TXOPERENA

Bestetako egunak zehaztuak

Besta Batzordearen lehendabiziko bilera egin ondotik, bestak zein egunetan egingen diren jakin ahal izan dugu: irailaren 26, 27, 28, 29 eta 30ean. Guttitan izaten dira besta guziki irailaren barrenean.

Hamar bikote pala txapelketan

Biltokik antolatutako aurtengo pala txapelketan hamar bikotek hartu du parte. Joan den urtean, Jose Ramon Etxeberria eta Carlos Irigoien izan ziren txapelkunak, eta aurten ere elkarrekin defendatuko dute txapela.



Egun polita haurrentzat

Ezin hobe pasatu zuten ekainaren 6a eskolako haurrek. Goizez, Etxalar eta Arantzakoekin batera, Kukubiltxoren emankizunaz gozatu ahal izan zuten Zahar Etxean. Egon ziren guztiek erran zuten, hagit ikuskizun polita izan omen zen. Arratsaldez, gaztelu haizatueta aspertu arte ibiltzeko modua izan zuten, bero ederrarekin gainera. Hurbiltzen ari zaie ikasurtearen bukaera ere.

Oskar Txoperena

Patri Arburua euskara teknikari

Patri Arburua igantziarra izanen da, orain arte bezala, Bortzirietako Euskara Mankomunitatearen teknikaria. Behin betiko teknikaria bereizteko ekainean zehar egindako probak gainditu ondotik, irailan hasiko da lanean.



San Juan Xar Eguna

Heldu den asteartean besta haundia izanen da igantziarentzat, San Juan Xar eguna baita. Ohiturak agindu bezala, San Juan Xarren bilduko dira igantziar eta inguruko herri guzietakoak meza entzutera eta ondotik Igantziko dantzari ttikien saioa izanen da bertan. Abesbatzak paratuko du aurten ere ostaturia eta joan den urtean hainbertzeko arrakasta izan zuten kamisetak izanen dira salgai. Jubilatuek ere urteroko bazkaria izanen dute Zahar Etxean.

Oskar Txoperena

Javier Manterola
TEKNIKO
INSTALATZAILEA
iturgintza • gasa • kalefakzioa
Tfnoa: 630 031 • BERA

OKANE
HARATEGIA • URDAITEGIA
Kanttonberri 4, Tfnoa: 63 00 18 • BERA

LABEZAR
© 631076 • BERA

BEKO ERROTA
Lore eta landareak
Frain auzoa • © 63 78 26
LESAKA

barnek s.l.
Sukalde mobileen fabrika
Zuzeneko salmenta
Lesakako sarreran, Beko-Errota ondoan
Otsango auzoa • LESAKA • Tel.: 637850, Fax: 637928

LANCHAS
• Parketak - Tarimak
• Kutxillatzea eta bernizatzeak
• Estaldura orokorrak
Bera © 630735 • IRUN © (943) 622305

BEREAU
jatekxoa • Hotela
Lesakako Bidegurutzean
Tfnoa: 62 75 09 • LESAKA

ERIALDO OSTATURIA
LESAKA

ARANTZA

Farolak eta bankuak paratu ondotik, plazan egiten ari ziren lanak bukatu dituzte

Sei milioi inguru gosta dira eta lautik hiru Nafarroako Gobernuak ordaindu du

ELIXABET ETA GARBINE

Azken hilabeteotan plazan egiten ari ziren obrak bukatu dituzte. Farolak eta bankuak jartzea falta ziren bukatutzat emateko eta horiek joan den asteanegin zituztem. Sei milioi inguru gosta da lana eta %76a Nafarroako Gobernuak subentzionatua zenez, herriak bi milioi ekas ordaindu ditu.

Ikasturte bukaera Ondarroan

Eskolako haurrek aurtengo ikasturteari behar bezalako bukaera emateko, ekainaren 24an, San Juan egunean, Ondarrura joanen dira egun pasa, denak batera.

Esku pilota txapelketa

Ekaitza elkarteak eskuzko pilota txapelke-



Korpus eguneko prozesioa

Argazkian joan den urteko Korpus Eguneko prozesioa ageri da, izan ere, aurtengoa, ekainaren 1eko eguraldia eurtsua zela eta ezin izan zen ospatu.

ta antolatu du, maila guztietan. Apuntatzen den jende kopuruaren arabera, erabakiko da ligilla edo kanporaketa

bezala jokatuko den txapelketa hau. Hori bai, partidu guziak larunbat ilunabarretan jokatu dira.

Presoen aldeko plataforma

Ekaitza elkarte eta Arantzako Gazte Asanblada euskal presoen es-

kubideak errespetatzearen eta euskalerriratzaren alde Bortzirietan egindako plataforman parte hartzen dute.

ANTZUZELAS S.L.

Irungo errep. - BERA - Tel. 948-631317

HARRI NATURALA

ATERATZEA eta LANTZEA

Antzinaleak	Tsiminiak
Angulak	Erlairak
Orma antzinak	Moldurak
Leioak	Zokaloak
Ateak	Hilariak
Arkuak	Marrazkiak
Pilareak	

'Abjuntak' Muzoi Zubar antzeko Tsapenak

ZINTARRIAK ADOKINAK ZOLAK

ALBERGEA JATETXEA

ATERPE ALBERGEA

☎ 634179 ARANTZA

J. RAMOS

Zolak akutxilatatu eta barnizatzen ditut

☎ 631342 BERA • ☎ 637172 LESAKA

OBRA PROIEKTUAK

- ✓ Etxe berriak eraikitzeko
- ✓ Zaharbarritzeko kanpotik eta barnetik
- ✓ Urbanizazio proiektuak
- ✓ Obra-zuzendaritza

Udalendako aholkularitza-zerbitzua hirigintza lanetan

BIDASOA arkitektura bulegoa

Bittiria, 45 • ☎ 637503 • LESAKA

EROSLE LESAKA

Kalitate-prezio arteko orekarik hobereana

Frexkuena zugandik hurbilago

Bittiria, 67 - ☎ 637264

TXIRULA

Albistur, 39-K ☎ 627542 LESAKA

- bitxikeriak •
- opariak •
- enmarkazioak •

SUNBILLA

111 milioi pezetako aurrekontua arrunta izanen du aurten Herriko Etxeak

55 milioi inbertsioetan gastatuko dira

JOSUNE ETA ISABEL

111.269.628 pezeta-ko diru sarrera-irteerak dituen udal aurrekontua onartu du Herriko Etxeak bere azken batzarrean.

Gastu nagusia inbertsioetan egingen da, 55 milioi pezeta erabiliko baitira horretarako. Lanik garrantzitsuen pilotalekuaren moldaketa izanen da 27 milioi pezetako aurrekontuarekin. Teilatua, parreta eta zola konponduko dira eta Nafarroako Gobernutik 12 milioi pezetako dirulaguntza espero da. Udaletxea moldatzeko asmoa ere bazen, baina Nafarroako Gobernuak Hirurteko Planean sartu ez duenez ez da momentuz egingen. Langileen soldatak ordaintzeko 16 milioi beharko dira eta ondasunak eta zerbitzuak eros-



Frontoia moldatzea da Herriko Etxeak duen asmo nagusia Artxiboa

teko 15.391.000 pezeta gastatuko dira.

Diru sarrerei dagokienez, 30 milioi subentzioen bitartez etorriko dira, 19 milioi transferentzia arruntenez, 9 milioi pasatuak zerga ezberdinen bidez sartuko dira Herriko Etxeko kutxan eta ia 10

milioi terdi tasa eta bertzelako dirusarrerak medio.

III. paleta goma txapelketa

Sunbillako paleta goma txapelketaren hirugarren edizioa jokatu da aurten. Aurtengo antolatzailea Antzakaitz

Kultur taldea eta Juanjo Ibarra izanen da, batez ere, gai hau eramanen duena. Izena emateko epea ekainaren 15ean akitzen zen eta parte hartzaile bakoitzak 500 pezeta ordaindu behar zituen. Finala, berriz, herriko bestetan jokatuko da.

Bidasoa-Berroaran mendietako aurrekontua 108 milioikoa izanen da

Bidasoa eta Berroaran mendietako Administrazio Batzarreak 109.449.922 pezetako aurrekontua onartu du aurtengorako. Inbertsioetan 43 milioi baino gehiago gastatuko dira.

Igerilekuetako arduraduna

Igande honetan zabaldu da udal igerilekua eta joan den urtean bezalaxe, Margari Capdequi izanen da bertako arduraduna. Irailaren 15a arte zabalik egonen da.

Fondako mus txapelketa

Akitu berria da Fondako mus txapelketa. Bertatik adierazi dugutenez, urrian berriz hasiko da.

ttipi-ttapa Zure publizitatea etxe xoko guzietan
 6.400 harpidedun
 22.000 irakurle
 ☎ 63 11 88

OSTIZ
 zapatenda • papertegia • estankoa
 Parrokia 17 • ☎ 450289 • **DONEZTEBE**

ALDABE TAXIA
DONEZTEBE
 ☎ 450687

ARIN **ASEGURUAK**

- Kotxeak
- Kamioiak
- Etxebizitzak
- Enpresak
- Istripuak
- Bizitza
- Aurrezkia
- Bertzeak

Parrokia 21
 Tel.-Fax: 450266
DONEZTEBE

APARAN, S. A.
 BRIKOLAIA eta ZURAK

- Melamina taulak
- Taula hidrofugoak (uretik babesteko)
- Txapaz estalitako taulak
- Entzimerak
- Ate arruntak eta sukalde mogleendakoak
- Pintura eta bernizak
- Bainurako mogleak eta osagarriak
- KIT mogleak, esku-erremintak, etab...

Tel.: 450 133
 451 541
 Faxa: 450 334
DONEZTEBE



Urteik urtera pilotari gehiago aritzen dira txapelketa honetan

Argazkia: MENA

176 pilotari aritu dira Ezkurraren omenezko pilota txapelketan

Helduen mailako finala ikusgarria izan zen

TXEMA ALDABE

Aurtengoan ere, hagitx arrakastatsua izan da Txaruta pilota elkarrekin Josetxo Ezkurra zena omenez egindako txapelketa. 176 pilotari aritu dira, denak Baztan eta Malerreka-koak. Txapelketa hau joan den apirilean hasi zen eta ekainaren 7 eta 8an jokatu ziren finalak Doneztebeko frontoian. Partidu onak ikusteko aukera izan da txapelketan zehar, baina helduen mailan, donezte-

bar eta zubietarren artean jokatuako finala goraipatu behar, partidu polita eta gogorra izan baitzen.

Sari banaketan Koteto Ezkurra eta Mikel Goñi egon ziren eta hauekin batera, Doneztebeko udaleko eta CANeko ordezkariak. Txaruta elkarrekin eskertu nahi dituzte lagun-tzaile hauek, parte hartu duten pilotari guztiak, baita horien gurasoak ere, paratu duten arreta eta gogoarengatik. Finaletak emaitzak:

Ttikiak

Jose Luis Agesta (Almandoz) eta Patxi Barberena (Iruñea), 18
Jon Sagaseta eta Asier Irigoien, 14

Umeak

Jokin Arraztoa (Doneztebe) eta Oskar Urrutia (Saldias), 12
Koldo Legarra (Doneztebe) eta Mikel Iraola (Almandoz), 18

Haurrak

Xanti Arraztoa eta Miguel Jose Plaza (Iruñea), 18
Borja Arraztoa eta Gorka Urtaun (Iruñea), 12

Gaztetxoak

Miguel M^u Urrutia (Saldias) eta Iñaki Eskudero (Eratsun), 18
Mixel Etxenike eta Patxi Zebriain, 11

Kadeteak

Xanti Ibargarai (Erratzu) eta Josu Baleztena (Eratsun), 18
Joseba Berho (Oronoz) eta Patxi Jaurena (Urdazubi), 7

Gazteak

Raul Saldias (Ituren) eta Jose Andiarrena (Doneztebe), 9
Mikel Baleztena (Saldias) eta Igor Babaze (Zubieta), 18

Helduak

Patxi Ordoki eta Luis Martin (Doneztebe-koak), 22
Jose Antonio eta Manuelto Santesteban (Zubietakoak), 18

flash

❖ **18 hilabeteko kartzela zigorra** eman diete hiru lagun (eratsundarra, elizondarra eta lesakarra), orain dela bi urteko Doneztebeko bestetan guardia zibilak eta jendearen artean gertatu ziren iskanbil ondoren. Lesakarrak, gainera, hiru milioi ordaindu beharko ditu. Hiru lagun horien lekuko adierazpenak ez zituen kontuan hartu epaileak.

❖ **Repsol-Butano** enpresari eman dio udalak Donezteben gas horniketa egiteko kontzesioa. Nafarroako herri gehienetan, 75 urteko kontzesioa bada ere, hemen 40 urtekoa izan da.


❖ **Paleta txapelketako** finalerdiak jokatu dira larunbat arratsalde honetan, ekainaren 21ean. Finalak ekainaren 28an, bestetan alegia, jokatu dira, Donezteben eta arratsaldean.

❖ **Hiru langile** kontratatuko diru udalak, ofizial bat eta bi peoi, heldu diren sei hilabetetarako herriko lanak egiteko.

ZURE GORPUTZA ZURE ALTXORRA DA

- Aurpegi eta gorputzerako tratamendu berrienak
- Depilazio elektrikoa eta argizariarekin
- Andregaiendako makilaiak

**Etorri eta ezagutu ezazu
estetika zentrua**



- Lurrindegia •
- Apaindegia •
- Oparidenda •

Ameztiak karrika z/g
© 450163 • DONEZTEBE

FUNERARIA ZERBITZUAK DONEZTEBEN



MALDAERREKA, S.L.

24 orduko zerbitzua
Iruñea-Donostia-Irungo ospitaletatik
edozein herritara trasladoak
Tfnoa: 63 74 04 • LESAKA
Tfnoa: 45 04 75 • DONEZTEBE

Arkupeak elkartearen urteko besta ekainaren 27an ospatuko da

Urrezko Ezteiak eta 85 urte bete dituztenak omenduko dira

TXEMA ALDABE

Datorren ortziralean, ekainak 27, ospatuko da Arkupeak jubilatuta eta pentsionisten elkarteak urtero egin ohi duen besta. Azken urteotan bezala, 85 urte betetzen dituzten bazkideak eta Urrezko Ezteiak ospatzen dituzten senar-emazteak omenduko dira, erretiratuen elkarteak sortu zenetik hamekagarren urtea betetzen den honetan.

Egitarauari dagokionez, zenbait berrikuntza izanen dira aurten. Goizeko 11etan argisoinuak eskainiko dituzte Doneztebeko txistulari eta txarangak. 12etan Meza Nagusia emanen du artzapezpikuak San Migel ikastetxeko frontoian. Bertan bertsolariak eta agintariak biltzea espero da.

Arkupeak elkarteak, Nafarroako Aurrezki Kutxaren laguntzaz antolatzen duen besta ho-



LAB-en konzentrazioa lan erreformaren aurka

Bazan-Bidasoako LAB sindikatuko delegatuen konzentrazioa burutu zen ekainaren 6an Doneztebeko INEMeko bulegoaren parean. Beraien helburua, Lan Erreformaren kontra protesta egitea zen, izan ere, azken bolada honetan aunitz solastu den proiektu honen aurka eta enplegu duinaren alde azaldu da sindikatu hau.

Argazkia: Txema ALDABE

nen ekitaldi nagusia, Bordatxo dantzalekuan eskainiko den bazkaria izanen da. Menua, ohi den bezala, Feli Galarretak zuzentzen duen Argetasko Jatetxe Modernoak eskainiko du.

Bazkariaren prezioa 3.000 pezetakoa izanen da.

Bazkalondoan, aurten 85 urteak bete dituzten bazkideak eta 50 urte esposaturik bete dituzten senar-emazteak

omenduko dira, merezi bezala. Ondoren, dantzaldia izanen da arratsaldeko 4,30etatik 7,45etara, AMALUR taldearen eskutik. Autobusen ordutegia jakinaraziko du elkarteak.

Bertsolari eta eratsundarren arteko pilota desafio ikusgarria jokatu zen ekainaren 7an

Euskitze Peñagarikanok Jose Luis Eskudero eta Juan Sagastibeltzaren kontra jokatu zuten

TXEMA ALDABE

Bertsolari famatuena eta eratsundar ezagunena arteko pilota desafio ikusgarria jokatu zen ekainaren 7an. Desafioa, inauterietan egin zuten. Alde batetik Euskitze eta Peñagarikanok bertsolariak eta bertzetik Jose Luis Eskudero eta Juan Sagasti-

beltza eratsundarrak. Apostu eta partidu bakarra izan bazen ere, bi pilotalekutan jokatu behar izan zuten. Izan ere, Eratsungo frontoian hasi ziren jokatzen, baina euri erauntsia hasi eta Ezkurrako frontoi estalira joan behar izan zuten.

Hor egon zitekeen apostuaren giltza. Era-

tsunen eratsundarrak ederki moldatzen baziren ere, gorriak ikusi zituzten Ezkurrari, Peñagarikanok ederki moldatzen baitzen han. Halere, azkenean 30 eta 26 eratsundarren alde.

Ondotik afaria izan zuten eta hemen, ez da erran beharrik ere bertsoan zein izan ziren hoberenak.

Bertso afaria ospatuko da larunbatean Aurtizko frontoian

Xebastian Lizaso eta Andoni Egaña arituko dira

IBAN ISASI

Larunbat honetan, ekainak 21, gaueko 9etatik aitzinera bertso afaria ospatuko da Aurtizko Koianea-ttikia pilotalekuan. Bertan, Xebastian Lizaso eta Andoni Egaña bertsolari ezagunak arituko dira eta gai-jartzaile lana Joxerra Gartzia -aski

famatua, hau ere -bete-ko du. Afalondotikan, Aitziber, Ainara eta Arkaitz trikitalariak arituko dira.

Afariaren prezioa 3.000 pezetakoa da eta menua berriz, honako hau: bakailu tortilla, aretxe saiheskia, entsalada, flan eta izozkia. Txartelak ohiko lekue- tan eskuratu daitezke.

▼ flash

Euskara ikasteko barnetegiak

Uztailaren 14an hasiko dira euskara ikasteko edo hobetzeko barnetegiak Doneztebe, Lesaka, Leitza eta Etxalarren. Ingurukoendako ere aukera ederra dago, egunean lau edo sei orduz euskara lantzeko. Uztailan eta abuztuan hiru aste-ko barnetegiak izanen dira eta irailean berriz, bi astekoak. Honetaz gain, abuztuan EGA ateratzeko klaseak emanen dira, egunean lau orduz. Guzi honetaz gehiago jakin nahi duenak aski du 637796 edo 451555 telefonoetara deitzea.

Cofes-Haizea

zentroarekiko atxikimendu gehiago jasotzen ari da. Alde batetik, San Migel eskolako Erreka Guraso elkarteak bere elkartasuna adierazi die zentruko langileei, Lekarozko Bigarren Hezkuntzako ikasle eta irakasleek bezalaxe.

Saldiasko Sanjuanak, ekainaren 20tik 24ra ospatuko dituzte

Igandean aizkol apostu ikusgarria burutuko da

Ostirala, 20

8etan altxaferoa. **9etan** baztan-zopak eta txurita-beltzak. **12etan** dantzaldia HARITZA taldearekin.

Larunbata, 21
Hauren Eguna

10etan karrika-erronda trikitilariekin. **Goizetik eguerdira arte** haurrentzako jokook. Pilota partiduak goiz eta arratsaldez jokatu dira. **Arratsaldez eta gauz** dantzaldia HARITZA taldearekin.

Igandea, 22

10etan karrika erronda trikitilariekin. **1etan** aizkora apostua: Mindegia aita-semeak, Arria V. eta Arrospideren kontra. **6etan** afizionatuen arteko pilota partiduak. **Arratsaldez eta gauz** dantzaldia MODESTOrekin.

Astelehena 23
San Juan Bezpera

10etan karrika erronda trikitilariekin. **Goizean** mus txapelketa azkarra jokatu da. **5etan** plater tiraketa herrikoentzako. **Gau partean** San Juan suak piztuko dira. **Arratsaldez eta gauz** dantzaldia MODESTOrekin.



Animazio handia espero da asteburu honetatik aurrera Saldiasko kaleetan. Sanjuanak behar bezala ospatzeko egitarau zabala prestatu dute. Zerbait aipatzekotan, igandeko aizkol apostua eta noski, San Juan bezperako suak.

Asteartea 24
San Juan Eguna

10etan karrika erronda herriko trikitilariekin. **12etan** Meza Nagusia. Ondoren, herri bazkaria. Bertan MODESTO akordeolaria arituko da. **Arratsaldez eta gauz** MODESTO arituko da, goizaldeko 3ak arte. Ordu horretan, 'Pobre de mi' kantatu eta bestak akintuko dira.

Hogeita bortz langabetu hasiko dira mendi lanetan

25 langabetu hartu dituzte mendiak eta basoak garbitzeko, batez ere arbolen garbiketara egin berriak diren tokiak garbitzeko. 24 gizaseme eta emakumezko bakarra arituko dira, bera izan baita lan horietarako izena eman

duen bakarra. Garbitze lanak Bortziriak eta Malerrekan egingen dira, batez ere. Ekainaren 23an, astelehenean, hasiko dira eta hiru hilabeteko kontratua egingen zaie. Lanpostu hauek INEMen laguntza izanen dute.

Narbarteko haurren hiletari buruzko zenbait xehetasun

TTIPI-TTAPAK aintzineko alean ekarritako informazioa zuzentzeko eskatu digute haurren gurasoek. Beraiek diotenez, «Gorpu-aurrean meza ez zela egiten ahal, J.M. Nazabal apezak erran zuen. Familiaren kontsolamendurako bederen, lurra eman ondotik meza egiten ahal ote zuen galdetutakoan, Nazabal jaunak ezetz erantzun zuen. Egitekotan, bertze egun batez egingen zuela, baina ez ehorzketa egunean. Meza berak ukatu zigun, bere kabuz eta inorekin kontsultatu gabe». Amak dioenez, «kanposantuan erresponstua egiteko, berriz, lehen momentuan ados gelditu bazen ere Nazabal jaunak, zalantzak agertu zituen gero, eta Bikarioari deitzeko erran zigun. Honek, gorra-behera batzuen ondoren, erretorea kanposantuan izanen zela agindu zion familiaren apez lagunari. Ordua ailegatu zenean, ordea, handia izan zen gure ezustekoa: ez baitzegoen han herriko apeza. Horren ondorioz antolatzen zuen apez lagunak Garaziren agurra».

Erakusketa Bertizko Natur parkean

Maiatzaren 31n zabaldu eta ekainaren 25a bitarte zabalik izanen da Bertizko Natur Parkeko jauregiko erakusketa aretoan Eguzki jostailuak izeneko erakusketa. Bertzalde, ekainaren 28tik abuztuaren 24ra Natur Zientzien Museoa prestatutako Arrainak ura amets erakusketa irekiko da.



AKORDEOIAREN GOI-MAILAKO AKADEMIA
MENGHINI AKORDEOIAK Angel Manuel Belio
AKORDEOIAK SALDU ETA ALKILATZEN DITUGU
DOMIÑENEA Etxea
San Andres Karrika, 40 - NARBARTE
© 943 - 61 50 55

ZALDIKO-MALDIKO
Opariak

laister zabalik



NARBARTE
(NAFARROA)

GOIZUETA

Hogeita sei boluntariok osatzen dute herriko su-hiltzaileen parke berria

50 ordu iraun duen ikastaroa bukatu berri dute

ESTEBAN AROZENA

Udala eta Nafarroako Gobernuaren elkarlanaren ondorioz, ekainaren 7az geroztik 26 boluntario, kamioi-zisterna eta Land Rover bat barrenean dauzkan su-hiltzaileen parkea bada herrian, egun horretan ailegatu baitziren aipatutako bi autoak, boluntarioek ikastaroa bukatu orduko, hain zuzen.

Iragarrita bazegoen ere, Rafael Gurrea presidente ordea ez zen agertu azkenean, arazoren bat sortu zitzaio-lako Gobernuko iturriek ziotenez. Halere, Iruñetik ordezkaritza haundia etorri zen, eta hemen izan ziren besteak beste, Alfredo Gonzalez, Barne Saileko zuzendari orokorra, Ramon Loitegi, Toki Administrazio Institutuko



Su-hiltzailearen lana betetzeko gai direla adierazten duen agiri bana jaso zuten ekainaren 7an Goizuetako su-hiltzaileek, udala eta Gobernuko ordezkarien eskutik.

Argazkia: Esteban

zuzendaria, Segurtasun Eskolako arduraduna den Juan Bariain eta Babes Zibileko Zerbitzuko beste hainbat tekniko. Aktu ofizial guztian zehar, hauekin batera izan ziren Pili

Untxalo eta Miguel Jose Lekuona, herriko alkate eta alkate-ordea.

Martxoaren 22an hasi eta joan den larunbatean zortzi bukatu arte, 50 ordu iraun duen ikastaroa egin dute 26 he-

rritar hauek, hamar larunbat guztira. Hauetatik 9 Altsasun eta azkeneo, herrian bertan. Hasitako guztiek bukatu dute, baita ezarri zitzaizen azterketa gogor bat gainditu azkenean.

Iskibi Tropikaña

'Iskibi Tropikaña' izena darama ostiral honetan, hilak 20, kanpin horretan gaueko 11etatik aurrera ospatuko den jaiak. 4.000 watioko potentzia izanzen du soinuak, eta beste 12.000 watioko argi mugikorren ikuskizuna ere erabiliko da bertan. Sarrerarik ez da kobratuko eta gainera, gauean bi ordutan zehar, txanpaina eta garagardoa dohain emanen zaizkie han elkartutako guztiei.

Haurren kanpaldirako begiraleak

Uztailaren 31tik abuztuaren 3ra bitarte, gure zonaldeko haurrek Gaztelun burutuko duten kanpaldian begirale lanak bete nahi dituztenek hurrengo asteazkena arteko epea dute izenak emateko. Baldintzen berri Herriko Etxean bertan emanen zaie, baita 504400 telefono zenbakira deituta ere.

ARESO

Uda garaiko ekitaldiak aipagai

Jaunartzeak, Kultur Egunak...

JUANA M^a SAIZAR

Uda garaiko ekitaldia ditugu aipagai ale honetan. Lehen jaunartzeak alde batetik, aurten hiru umetxo izan ditugu protagonista: Aingeru, Oihana eta Garikoitz. Festa polita antolatuta bazen ere, eguraldia izugarri lardas-

katu zen ekainaren Ieko Corpus Eguna.

Kultur Egunak bes-taldetik, egun terdiko iraupena izan zuen aurten eta hemen bai, eguraldiak lagundu zuen. Denek gustora dastatu omen zituzten hainbat ekitaldi. Umeek esan dutenez, oso ongi pasatu zuten beraientzat

prestatutako jokuetan.

San Migelen bisita izan genuen ekainaren 8an, ohitura den bezala. Aurten eguraldi aldaketarik ez dugu sumatu bere bisitaren ondoren. Euria ekartzen duela esaten dute gure zaharrek.

❖ **Kurtso bukaerako** ateraldian Cabarcenoko parkera (Santander) joan behar dute eskolako umeek ekainaren 20an.

Hainbat ekitaldi burutu dira Kultur Egunen barnean

Juana Mari



Ekainaren 24an epaituko dute Oskar Astibia herriko intsumitua

Fiskalak hiru urteko kartzela zigorra eskatzen du

JOSEBA AZPIROZ

Intsumitu izateagatik zigorra betetzen ari zela gartzelan gertatutako leherketa baten ardura leporatzen diote Oskarri. 'Oskar Etxera' herri ekimenak zabalduko informazioaren

arabera, leherketaren ondorioz jasan zituen zauriak dira fiskalak frogatzat erabiltzen duena, baina forentseak txostenean aipatzen dituen zauriak eta Oskarrek zituenak ez datoz bat. Jakin behar da forentseak ez duela sekula

Oskar aztertu. Gauzak horrela, aipatutako herri ekimenak, Auzitegiaren aurrean eginen den kontzentrazio baterako deialdia luzatuko duela jakinarazi digu.

Bitartean Oskarren askatasunaren aldeko firma bilketa burutzen

ari dira eta epaileari telegramak bidaltzeko eskakizuna ere luzatuko dute laister.

Oskar eta Igor intsumituen askatasunaren alde maiatzaren 17an egin zen manifestazioan 550-600 bat lagun bildu ziren.

Udako kanpaldia Gaztelun

Euskara Zerbitzuak 8-14 urte bitarte koentzat kanpaldia antolatu du Gaztelun. Uztailaren 31tik abuztuaren 3a bitarte izanen da eta izena, eskolan edo Udaletxean eman behar da hilaren 25a baino lehen eta 6.000 pezeta kostako da. Haurren arteko harremanak bultzatu, Euskal Herriko kultura eta natura hobeki ezagutu, haurren garapen pertsonala landu, inguruarekiko jarrerara positiboak lortu eta euskararen erabilera bultzatu, dira antolatzaileen esanetan, kanpaldiaren helburuak.

Bestalde, 4 begirale behar dira kanpaldi honetarako. Interesatuak, lau egun horietan kanpaldia nola antolatuko luketen azaldu beharko dute, udaletxean izena ematerakoan aurkeztu beharko duten programazioan. Programazio guztien artean egokienak aukeratu dira eta lau lagunei eskainiko zaie begirale lana. Izena emateko eta egitaraua aurkezteko epea ekainaren 25ean bukatuko da.

Karrape Irratia

Udalak Karrape udal irratia esatari edo lokutore zerbitzua kontzesio bidez emateko lehiaketaren deialdia onartu zuen. Lehiaketan parte hartu nahi dutenek, Nafarroako Aldizkari Ofizialean iragarkia argitaratzen denetik uztailaren 16ko eguerdiko 12ak arte izanen dute proposamenak aurkezteko denbora.

flash

Landan bonba bat azaldu zen

Industrialdeko obretan ari zirela, norbaitek bonba itxura zuen zerbait ikusi eta hala ote zen, gerra zibilekoa zela ez zela, guardia zibilei deitu zieten. Hauek Iruñeko "artifizieroei" deitu eta baita etorri ere. Azkenean, kamioi baten karter zahar bat zen. Hori da *patinazoa* hori.

Liburutegia

goizetik irekiko da uda partean. Ekainaren 15ean hasita eta irailaren 15a arte, goizeko 8,30etatik eguerdiko 2,30ak arte zabalduko ditu bere atak.



Kamioi berria su-hiltzaileentzat

Ekainaren 8an Nafarroako Gobernuak su-hiltzaileen zerbitzua hobetzeko emandako kamioiaren aurrean ageri da bolondres taldea. Egundorretan, zenbait arduradun etorri ziren Iruñetik su-hiltzaile boluntarioek egindako ikastaroari amaiera ematera. Nafarroan sortu zen lehen bolondres taldea da Leitza eta beraz, gainerako taldeen aitzindaria, Barne Saileko Zuzendari Nagusiak azpimarratu zuen bezala. Administrazio ordezkariek dutxa eta aldagelak egiteko parkea handitzeko eskaera aztertuko dutela eta ambulantiaren zerbitzua su-hiltzaileenarekin bat egin eta behar diren ikastarok eskaintzeko konpromezua hartu zuten.

Argazkia: Joseba AZPIROZ

**ETXANDI
TXOKO
jatetxea**

Bazkari, afari
eta gosariak

ITUREN
Tfnoa: 45 04 91



Basa Kabi baserrian bihurtu da.
Baserriko menua.....2.200 pta.
Sagardotegiko menua...2.950 pta/per.
Banabar jatea1.900 pta.


Basa Kabi Tel. 510125 • Faxa: 610965
LEITZAko gaina

OPS Ingenieros S.L.

- **Topografi lanak:** Lur neurketak, balorazioak.
- **Nekazal proiektuak:** Bideak, ur depositok, etxebizitzak, granjak, nabeak...

Barañain Etorb.2 • IRUÑA • Tel: 267453-267602

**muñeca
de Trapo**



IRUN

Luis Mariano, 35
Tel.: (943) 62 52 55

923 milioi pezetako aurrekontua izanen du aurten Balleko Etxeak

Erresidentziak 167 milioi, eta 52 terdi ikastolak

JOSEBA IGARABIDE

923.370.389 pezetako aurrekontua izanen du aurten Balleko Etxeak, azken batzarrean EArean aldeko botuekin eta UPNren kontrakoekin onartu zenez.

Inbertsioetan 384 milioi gastatuko ditu udalak eta langilegoaren soldata ordaintzen ia 217 milioi erabiliko dira. Diru sarrerei dagokienez, 256 milioi subentzioen bitartez ailegatuko dira, 282 milioi tranferentzia arrunten bidez, 150 milioi pasatuak zerga ezberdinak kobratu ondotik eta 49 milioi tasa ezberdinak medio.

Batzar berean F.J Iriarte Erresidentziaren (167.297.000 pezeta) eta Baztango udal ikastolaren (52.618716 pezeta) sarrera-irteerak onartu ziren.

Aurrekontuaren kontrako botua azaltzerakoan, UPNK «ditugun posibilitateendako ez dira egokiak» adierazi zuen «eta gutiago 23 milioiko kreditua eskatu behar baldin bada».



Akordeolari talde berria lehen emanaldia igandean

Zonaldeko akordeolari talde berri batek ekainaren 22an lehen emanaldia eskainiko du Elizondan. 8 eta 17 urte bitarteko 15 neska-mutirik (Ornoz, Beintza-Labaien, Gaztelu, Urdazubi, Narbarte, Sunbilla eta Doneztebekoak) osatzen dute taldea. Angel Manuel Belio irakaslearen helburua herrietan musika berreskuratzea eta gaztetxoek jendearen aitzinean akordeoia jotzeari beldurra galtzea da. Norbaitek taldean parte hartu nahi badu, atek zabalik daude. Taldeak eskerrak eman nahi dizkio Oronoz-Mugairiko Gaztelune elkarteari, entsaiatzeko egoitza uzteagatik.

Josu INZIARTE

Alkateak berriz, «Kontu Ganbararen arabera, zenbait erabaki hartzen baditugu, gaur egun Balleko Etxeak duen zorpetze maila onartu dezakegu» erantzun zuen. Joan den urteko udal kontuak eta ordenantza fiskalak ere onartu ziren.

Herri lurretako bazkalekuak hobetzeko 17 milioiko proiektua

Balleko Etxearen herri lurretan dauden bazkalekuak sortzeko eta hobetzeko 17.290.264 pezetako aurrekontua duen proiektua idatzi du Nafarroako Gobernuak. Zehazki, Montxea, Auz-

kue, Osabat, Basarte, Lendari, Martintonea, Etxeberea, Otxaski, Mandatxen, Etxoto, Juanikot, Sustxulu, Putzualde eta Eder inguruetan hobetuko dira lurreak.

flash

Ikasturte bukaerako kontzertua

antolatu du Baztango Musika Eskolak Balleko Etxearen laguntzaz ortziral honetarako, ekainak 20. Kontzertua 5,30etan hasiko da Elizondoko Arizkunena kultur etxean. Rosa M^a Sanchez irakasleak aurkeztuko ditu musika lanak eta interpretatzaileak.

31.034.389

pezetako dirusarrerak izanen ditu aurten Balleko Etxeak Ibilgailuen Zirkulazio Zergaren bitartez. Uztaillaren 15a arte zabalik dago ordaintzeko borondatezko epea. Abuztuaren 15a arte %5 gehiago ordaindu beharko da eta gero, ordaindu ez dutenak, zordunak izatera pasatuko dira.

Mugarri xehetuak

Zenbait mugarri xehetuak agertu direla eta bere gaitzespen gogorrena adierazi du Balleko Etxeak.

50.000 pezetako beka banatuko du udalak aurtengo UEUko ikastaroetan parte hartzen duten baztandarren artean.

LAU BIDE

Traktore konponketa eta salmenta

Modelo berriak: Etorri, ikusi eta erosi

MASSEY FERGUSON banatzaileak

© 453425 • ARIZKUN

Okindegia Jatetxea

Uxoaa

Polig. Ind. Ordoki Tfn.: (948) 45 34 03 31713 ARIZKUN

- Okindegian
- Ogi artisaua, egunekoa eta txapata
- Jatetxean
- Menua eta karta (asteburuetan)
- Espezialitate parrilan erretako jakietan

Enkargatuz gero, bildotsa oqi-labeen erreka. Goxo-goxoa!

BAZTAN

Arizkunen Sanjuanak eta Erratzun Sanpedroak ospatuko dituzte

Egitarau zabalak prestatu dituzte horretarako

ARIZKUN

Ortzilarie, 20

12etan suziriak, txopogoratzea, txalaparta eta ezkil-jotzea. **5etan** sekulako desafioa. **9etan** baztan-zopak Elkartasuna elkartearen. **12etan** kontzertua: TXAKUN. **6etan** zinger-jatea.

Larunbata, 21

Haurren Eguna

9etan dianak. **10etan** haurrendako jokoak. **1,30etan** bazkaria haurrendako elkartearen. **4etan** plater tiraketa libre. **5etan** pailazoak eta txokolatada. Arratsaldez eta gauez LAIOTZ. **10etan** mutildantzak eta gaita. **6etan** ziztor-jatea.

Igandea, 22

9etan dianak. **12etan** trikitixa eta hameketakoa herrikoendako. **5etan** herri kirolak. Gero Baztango dantzariak. Arratsaldez eta gauez KAIXO taldea. **10etan** mutil-dantzak eta gaita. **6etan** gasna-jatea.

Astelehena 23

San Juan Bezpera

9etan diana. **11etan** bertze desafioa. **12etan** mus txapelketa azkarra. **2etan** zikiro-jatea. Arratsaldez eta gauez CRISTIAN. **9,30etan** San Juan suak eta ezkil-jotzea. **10etan** mutil-dantzak eta gaita. **6etan** zinger-jatea.

Asteartea 24

San Juan Eguna

6etan ezkil-jotzea. **9etan** dianak. **11etan** Meza Nagusia. **12etan** mutildantzak eta bertsolariak. **5etan** pilota partiduak eta herriko dantzariak. Dantzaldia Cristianekin eta **3etan** 'Pobre de mi' eta txopo botatzea.



San Juan gaua Arizkunen



Dantza egiteko bi modu Erratzun

ERRATZU

Ortzeguna, 26

8etan altxaferoa eta ezkil-jotzea. **8,45etan** akordeolariak. **9,30etan** baztan zopak Albantzenear. Ondoren DESKANTXO taldea kanpinean.

Ortzirala, 27

Haurren Eguna

10etan dianak. **11etan** haur jolasak. **4etan** Popi Zarratrako pailazoak eta Koldo Ameztoi ipuin kontalaria (Baztango Udala eta Nafarroako Gobernuaren laguntzaz. **8etan** pilota partiduak Erratzuko *promesa gazteen* artean. **7etan** txokolatada Zubipuntan. Arratsaldez eta gauez dantzaldia GOIURI taldearekin. **11etan** Panpi Portugal kantaria Iparla ostatuan.

Larunbata 28

10etan dianak. **11,30etan** pilota partiduak. **4,30etan** Txirrindula itzulia Izpegiraino (1.sektorea). **5etan** pilota partiduak. **6etan** Kronoeskalada Izpegira (2. sektorea). **7,15etan** sari banaketa. **7,30etan** Iparragirre akordeonista taldearen aktuazioa. Arratsaldez eta gauez DESKANTXO taldea.

11,30etan Erramun Martikorena.

Igandea 29

10etan dianak. **11etan** Meza Nagusia. Ondoren aureskua plazan. **12,45etan** Erratzuko II. Duetloia-iren irteera. **1etan** luntxa herriko ostatuan. **2etan** sarei banaketa. **6etan** herri kirolak. Proba konbinatuak. **7,30etan** dantza saioa herriko taldearekin. Arratsaldez eta gauez BASAJAUN taldea.

Tartean, txistulari eta gaiteroekin: muxikoak, larrain dantza, gaita, mutildantza, etab.... **11etan** rock kontzertua Zubipuntan.

Astelehena 30

10etan dianak. **11,30etan** neska eta mutikoen pilota partiduak Gorostapolon. **2etan** zikiro-jatea. Arratsaldez eta gauez JOXE ANGEL. Tartean sarien zozketa. **4etan** Pobre de mi eta besten akabera.

ONGI PASA HERRIKO BESTAK

BEREKO BENTA

ostatu • janaridenda • oroigarriak

Bokadilloak ematen dira

Izpegi • © 453207 • ERRATZU



Herriko Plaza • © 453118 • ERRATZU

ETXEBERRIA

ostatua • jatetxea • denda

Besta on batzuk pasa

☎ 453013 • ARIZKUN

IPARLA OSTATUA

- Egunero bokata eta pintxo beroak
- Igandetan salda
- Giro ona

Aduana k. • ☎ 453153 • ERRATZU

Nafarroako Mendi Duatloia
ren bigarren proba
Erratzun burutuko
da ekainaren 29an

Ekainaren 29an, eguerdiko 12.45etatik aitzinera, burutuko da Erratzun Nafarroako Mendi Duatloi txapelketarako puntua-garria izanen den bigarren txapelketa. Partehartzaileek, lehenik 4 km egin behar dituzte laisterka, 15 km mendi bizikletan eta azkeneko 2,6 km, berriz ere oinez.

Lehen atleta ateri eta 50 minutura ailegatzea espero da eta kontrola, proba hasi denetik ordubete eta 40 minutu betetzera-koan itxiko da. Proba herrikoia denez, edozeinek har dezake parte, lau kategoriatan banaturik: junior, senior, helduak eta emakumezkoak. Sariak emanen zaizkie maila bakoitzeko hiru lehen-dabizikoei.

Izena emateko 700 pezeta ordaindu behar-ko dira, 580813 telefonora deituz, edo bertzela irteeran bertan, proba hasi baino ordu erdi lehenago arte.

ZUGARRAMURDI

Herriko pilota txapelketa jokatzeko hasiak dira hogeita bi bikote

Lehen aldiz emakumeak ari dira paletan gomazko pilotarekin

MARGARI ETA KORO

Animazio handiarekin hasi ziren gan den maiatzaren 24an pilota txapelketaren partiduak. Denetara 22 bikote ari direnez, modalitate hauetan jokatzeko da: laruzko eta gomazko pilotarekin palaz eta eskuz (hauek haurretan).

Aurtengo berritasuna, neskek ere kategori bat osatu dutela izan da. Ez dira aunitz apuntatu, bainan hasteko sei bikoteekin nahikoa izanen da heldu den urtean jende gehiago animatzeko. Hori bai, orain arte ikusi diren bi partidutan gaztetxoek nagusitu dira. Beraz, argi da ez dagoela bromarik eta afera seriozki hartu behar dela. Giro aldetik ere, lehenbiziko partidu hauetan nabari da neskek sortu duten ikusmina eta sekulako ani-



Hogeitazte egin zuten konfirmazioa

Argazkian agertzen direnak, gan den maiatzaren 23an sendotza edo konfirmazioa egin zuten hogeitazte ageri dira, Iruñeko apezpikua eta herriko apezarekin batera.

mazioa izan da.

Bi hilabete hauetan, larunbat eta igandero izanen dire partiduak eta ondoren, finala bestetan jokatu da.

Kultur ekintzak

Batean *Akelarre* elkarteak dela, bertean *Kisu-labe* elkarteak dela, eta bien artean, kultur ekintza, ikastaro eta gisakoetaz ongi horni-

tua dute herria.

Azkenekoa, gan den ortziraletan, ekainak 13, burutu zen antzerki aretoan: «Bi emakume bizikletaz Turkiatik Birmaniara» diapositiba emaldia eta mintzaldia. Bi emakume trebe hauek Amaia Elozegi eta Esther Mugerza ziren eta bere esperientzia bitxi hunen bertiz zuten gure artean.

Larunbat huntan ospatuko da gaupasa

Larunbat huntan, ekainak 21, ospatuko da gaupasa. Egitaraua zehaztua dago eta *Kukumu* taldearekin izanen den dantzaldiaren aitzinetik, Iparraldeko *Yassa* reggae taldea arituko da. Antzerkia eta zantzarren ere lezeetan ikusgai izanen dira.

BAZTAN
ALTZARIAK
zurgindegia

- Sukalde, logela, jangela eta egongelarako mogleak
- Estiloko mogleak: Luis XV, Regence, L. Felipe, Napoleon.
- Haritz, gaztaina eta gerezi egurretan egindakoak

121 errepede nazionala, 54. km
 Tfnoa: 45 23 74 - IRURITA

ARROPA DENDA
 MERCERIA
FANTXIKE
 JAIME URREUTIA, 29
 TFNO. 580312
 ELIZONDO

CERVANTES
 HELVETIA SEGUROS

Era guzietako aseguroak
 Eska itzazu aurrekontuak
 Juana M. Urrutia

Pierresenea
OSTATU - JATETXEA
 Jaki Tipikoak • Etxeko Giroa

Iturriotz Auzoa • © 592043 • ORONOZ-MUGAIRI

LARRALDEA

SAGARDOEGIA

Asteartetik ortziera Betatik aitzinerat
 Lanunbata eta bestia egunetan zabalik.

© 45 21 21 • LEKAROZ

Musikaren Besta ospatuko da udako lehen eguna kari, ekainaren 21ean

Arratseko 9etatik aitzin polikiroldegian, Zazpiak Bat elkarteak antolatua

JACQUELINE ETA MIXEL

Ohi den bezala, larunbat huntan, ekainak 21, Musikaren Besta ospatuko da, udako lehen eguna kari. Bestahunen antolakuntza Zazpiak Bat elkarteari zor diogu eta arratseko 9etarik aitzina Sarako abeslari, musikari eta soinuari entzuteko parada ukatzen duzue polikiroldegian. Hiru eskolek ere parte hartu beharra dute.

Gau eskolako ikastaroa amaitzean

Sarako Gau Eskolako Bingo afari bat antolatu du ekainaren 20an, ortziralez, Gaztetxean.

Urte hunen hasieratik zazpi bat gaztek eskararen berreskuratzeko urratsen betetzen ari dira eta, ikastaroari doakion amaiera emaitzean



Olhain ikastolako neska-mutikoez hiru egun zoragarri bizi zituzten Hegoaldean gaindi, Hondarribia eta Donostian barrena. Mendia eta itsasoa ezagutu eta Txiki-Parken jostatzeko parada ukan zuten.

ko gisan, nahi izan dute mahain baten inguruan bildu lagunartean. Hauen partez, ongi etorria deneri.

Olhain ikastola bidaiez

Joan den maiatzaren 21, 22 eta 23an, Sarako Olhain ikastolako ha-

mar bat haur Hegoaldean gaindi ibili zaizkigu. Nahiz eta Hondarribin aterbetuak, inguruak ere bisitatu eta eza-

gutu dituzte. Hondarribian bertan, itsas faroa eta Jaizkibel eta Gualupe mendiak ikusi zituzten. Donostian, berri, itsas erakustokia bisitatu eta Txiki-Park jolas-parkean jostatzeko aukera izan zuten.

Argazkia lekuko, segur irudi asko ekarri dituztela bere gogo-bihotzetan haur tiki horiek.

Euskal Herria zuzenean

«Euskal Herria zuzenean» jaialdia uztailaren 4, 5 eta 6an ospatuko da Arrosan, Baionako Piztu elkarteak eta Irulegi irratiak antolatuta. Asteburu horretan, hainbat musika talde aditu ahal izanen dira Baxenafarroako herri hortan. Gure eskualderantz txartelak eros litezke Herriko Etxeko edantegian.

OLARI
Jatetxea

Tfnoa: (948) 45 22 54

IRURITA

* Jatetxea haize egokituarekin hornitua

HERRIKO ETXEKO EDANTEGIA

Michel eta Kattin
Guerendiaian

Tfnoa: 59 54 25 19 • SARA

ARMUA
Jatetxea

Zugarramurdiko karretera 3. Km
Tfnoa: 59 91 31 • URDAZUBI

IPINGI ZATOZ ETA IKUSI
Santiago 88, Tfnoa: 580939
ELIZONDO

**UDAKO ARROPAK
NOBEDADEAK**

BIKINI eta BAINUJANTZIAK

Elizatzte

**ERLOJUTEGI
BITXITEGIA**

*Nafarrentzat
prezio bereziak*

Landetxe Enparantza
© 943.492698
OIARTZUN

EZKONTZAK


Jose Javier Aranburu Garziarena eta M^a Carmen Agirre Barandarain, Leitzakoak, maiatzaren 24an.
 Philippe Garbiso eta Sophie Elizalde, Sarakoak, erearoren 7an.
 Jose M^a Galindo Extramera eta Izaskun Leiza Arozamena, Iruña eta Lesakakoa, ekainaren 7an.
 Jesus M^a Ariztegi Arozena eta M^a Dolores Salaberri Apezetxea, Oitz eta Oierregikoa, maiatzaren 24an.
 Onofre Migeltorena Gamio eta Xole Ezkurra Salaberri, Donamariakoak, maiatzaren 31n.

JAIOTZAK

Jon Perurena Labaien, Leitzakoa, maiatzaren 31n.
 Aitz Aioroa Apeztegia, Iturengoa, ekainaren 1ean.
 Itxaso Mindegia Mitxelena, Iturengoa, maiatzaren 24an.
 Irati Mindegia Mitxelena, Iturengoa, maiatzaren 24an.
 Iñaki Anso Dendarieta, Elizondokoa, maiatzaren 13an.
 Itxaro Jauregi Irisarri, Erratzukoa, maiatzaren 25ean.
 Jagoba Ariztegi Elizondo, Lekarozkoa, maiatzaren 14an.
 Jennifer Gimenez Jimenez, Elizondokoa, maiatzaren 14an.
 Miren Telletxea Manterola, Berakoa, maiatzaren 27an.
 Sara Etxegarai Etxegarai, Berakoa, maiatzaren 30ean.
 Raquel Etxegarai Etxegarai, Berakoa, maiatzaren 30ean.
 Igor Lanz Urtxegi, Berakoa, ekainaren 5ean.
 Mikel Oteiza Almandoz, Arantzakoa, maiatzaren 31n.

HERIOTZAK

Francisco Agirre Arregi, Oronoz-Mugairikoa, maiatzaren 20an, 64 urte.
 Simona Bengoetxea Esparza, Oierregikoa, ekainaren 1ean, 75 urte.
 Josefa Higinia Etxeberria Salaburu, Arizkungoa, ekainaren 3an, 81 urte.
 Jesus Oneca Visus, Elizondon, ekainaren 6an, 64 urte.
 Claudia Arretxea Galzagorri, Berakoa, ekainaren 5ean, 80 urte.
 Victoriano Ordoki Almandoz, Arantzakoa, maiatzaren 15ean, 73 urte.



Bidali
 TTIPI-TTAPA
 herritik kanpo
 bizi diren lagun edo
 familiakoei

Bakar bakarrik bidaltze gastuak ordaindu behar dira.
 Eskatu informazioa.

631188

ZORIONAK!

Gure oparia ematean lehenak izan nahi dugu



Haurtoa jaio izan eta berehala etor zaitez Iruñeko Kutxara. Saskitxo-aldatzaile hau, haurgarbiketarako produktuez bete, emango dizugu.

Ez ahantzi familiaren liburuxka!

IRUÑEKO KUTXA
 Iruñeko Kutxa, Alameda 10



ZURE ARGAZKIAK
 ORDU BATEAN EGITEN DITUGU

KALE Nagusia 4
 TEL. ETA FAX: 45 08 25
 DONEZTEBE

1A 100 URTE KALITATEA ETA
 PROFESIONALTASUNA ESKEINIZ

SANTIAGO KALEA 40
 TEL: 58 01 55
 ELIZONDO



**Claudia ARRETXE
 GALTZAGORRI**

(Ramon Arribillagaren alarguna)

Egurri baserrikoak eta bere familiak egun hauetan hartu dituen dolumin ugariak lerro hauen bitartez eskertu nahi lituzkete bihotz-bihotzez. Gure eskerrik beroenak guziet.

Bera, 1997-06-5

Euskal Herria Zuzenean, Arrosako Rock Jaialdia

Hiru egunez 20 musika talde baino gehiago izanen dira, Rigor Mortis baztandarrak horien artean

Donibane Garazitik 10 minutu eskasera dago Arrosa, Baigorri aldera abiatuta, erdibidean. Uztailaren 4, 5 eta 6. egunetan, bertako eta kanpoko 20 musika talde baino gehiago, dantzariak, antzerki taldeak eta bertze espektakulu mordoxka bat izanen dira ikusgai baxenafarroako herri ttiki honetan.

Euskal Herria Zuzenean izeneko jaialdia Irulegi Irratia eta Piztu elkartearen artean antolatu dute. Egitarauari dagokionez, hiru egunetan musika mota ezberdinak aditu ahal izanen direla erran



behar da. Ortzirral arratsa ska, reggae eta afro doinuei eskeinia diote, Potato, Mousse (Paris), Zaldibobo, Zpeizurdiak, Massilia Sound Sistem (Okzitania) eta Hechos Contra el Decoro madrildarrekin.

Larunbat gaua, berriz, rock gaua izanen da. Les Naufrages (Nantes), Ixo Rai (Aragoi), Joxe Ripiau, Zebda... eta bertze hainbat talde ariko dira. Hoiere artean Rigor Mortis baztandarrak entzuteko aukera izanen da.



Igandean, azkenik, folk doinueak izanen dira nagusi, Oskorri, E.V. (Breizh), Os Diplomáticos de Monte Alto, Erramun Martikorena, eta bertze batzuekin.

Kontzertuez gain, dantzariak, gaiteroak, trikitixa, performance-ak, Kukubiltxo eta hainbat antzerki emanaldiz gozatu ahal izanen da Arrosako zelaletan. Euskararen Historiari buruzko CD-rom-en ikustaldia, Hitz Egin 97 topagunerat etorritako hizkuntz gut-

tituen irrati librean erakusmahaiak...

Goiko irudian ikusten ahal den bezala, ikaragarriko muntaiak egiten dute Arrosako zelaletan, bestaren arrakasta zernahikoa izan dadin.

Ez galtzeko moduko jaialdia, beraz, uztailaren lehenbiziko asteburuan iparralden ospatuko dena. Interesatuta baldin bazaude, Sarako Herriko Ostatuan edota Xorroxin Irratian aurkituko dituzu sarrekerak salgai.

San Juan gauak ez du bere lilura galdu

Ohiturak, halere, dexente aldatu dira urteen joan etorriarekin

Sua, ura eta landareak izan dira betidanik San Juan gaueko protagonista nagusiak, eguzkia gurtu eta sasoi berri bati, udari, ongietorria egiteko Europa osoan ekainaren 23an ospatzen den erritoaren barnean. Sasia, erramu bedeinkatua eta bertze zenbait landare pilatu eta su ematen zitzaizen garai batean, gizasemeak, abereak eta bertze ondasunak eritasunetik eta gaizkietatik gordezko otoitzlaburrak erratan zituzten bitartean. Oraindik ere, gure baserri, auzo eta herri gehientsuenetan urterobixten dira suak, San Juan bezperarekin. Baina garaiak aldatzen diren bezalaxe, ohitu-

rek ere aldaketak jasaten dituzte, gustatu edo ez. Sasiak eta erramu bedeinkatuak beharrezan, kartoiak, egur pusketak eta neumatiko bat edo bertze erretzen da orain, eta neska-mutikoak suaren gainetik saltoka ibiltzen dira ajiari batean. Garai batean besta honek zuen erranhiaren zati haundi bat bidean galdu egin da, nahiz eta funtsean ospakizun honek duen helburua garbi somatu daitekeen. Itxura guzieren arabera, hagitz aspalditik (kristautasuna sartu aintzinetik) ospatzen da egun hau, eta eguzkiari eskerrona agertu eta berau gurtzea daude sakon sakonean. Biharamuna, ekainaren

24ko goiza ere berezia izaten da zonaldeko leku batzuetan, Igantzin erraterako, San Juan Xarrera biltzen baita inguruetakojendea, haren urarekin gorputza garbitu, eta larruko eritasunak sendatzeko intentzioarekin. San Juan egunarekin lotuak, badaude bertze zenbait ohitura ere: kulkaina edo arbola bat altxatzen da leku batzuetan (Irunen adibidez), maite edo mespresatzen den pertsonaren leihoan sentimendu hori adierazten duten landa-



Arizkunen sasiak eta belarrak erretzeko ohitura gorde da, argazkian ageri den bezalaxe.

reak paratzen dira bertzeetan...

San Juan bezperaren lilura eta erranahia berreskuratzeko asmoz, Lamixine BAT antzerki taldeak ekitaldi berezi batera deitu ditu Berako bizilagunak. Leku Eder auzoraino pe-

grinazioan joanen dira, han dagoen arbola magiko baten inguruan elkartzeko. Urte guzian gertatutako gauza txarrekin zerrenda bat egin eta sutara botako du pelegriño bako txak, heldu den urtea hobea surbertzea eskatuz.

☞ **Abel BARRIOLA** Leitzako pilotaria

“Oso gazte igo naute, baina aukera honi ezin zitzaion ezetz esan”

Hilabetea pasatu da Leitzako atzelari sendo honek -1,85eko altuera eta 82 kilo- Altirekin kontratu profesionala sinatu zuenetik, baina oraindik ez du debutatzerik izan, eskuko arazoak direla medio. «Oinazearekin nenbilen azken hilabeteetan eta infekzio bat harrapatu zidaten esku barranean. Orain tratamenduan nago, hobetzen ari da baina mantso-mantso». Irrikitán dago, noski, bere lehen partidua jokatzeko eta hemendik bizpahiru astera gertatzea espero du. Enpresako jendea bere partidua ikusten eta kontseiluak ematen sumatzen bazituen ere, us-te baino lehenago iritsi zaio saltoa. «Harritu egin nintzen, interesa zutela banekien baina horren abudo deituko zidatenik ez nuen us-te...Atzelaria izateko oso gaztetan hartu naute, gu izaten baikara partidua pisu gehiena eramaten dugunak. Baina horrelako aukera ematen badizute ezin duzu ezetz esan». Ikasketak ere ez ditu erabat utziko. «UBI gainditzen badut karrera bat priesarik gabe egiteko asmoa dut, urtean 2-3 asignatura hartuz».

«BI ESQUAK BERDINTSUAK DITUT»

«Eskuinarekin suel-

▶ *“Saltoa gehiago nabaritu dut, ia zuzenean jubenetatik pasatu naizelako. Horregatik, kategorian asentatzea da nere lehen helburua.”*



«Kantxan asko mugitzea gustatzen zait, zati haundia kubritzen dut»

to jotzen dut eta ezkerre ere ez dut baldarra. Kantxan asko mugitzea gustatzen zait, zati haundia kubritzen dut eta hori jendeari gustatzen zaio» dio Abelek bere ezaugarri nagusien berri eskatzen diogunean. «Hobetu beharrak ere gauza pila bat dut, baina, nagusiena irregularitasuna. Partidu-


nahiko onak egin ditzaket, baina hurrena oso txarra ere bai. Gazte zarenean konfidantza abudo hartzen duzu, baita berehala galdu ere» onartzen du. Bere aurrelariak «arriesgatzea eta ausarta izatea» gustatzen zaio, «nahiz ongi nahiz gaizki atera. Egia esan oso ongi ohitua nago, orain arte gehiena Aimar Olaizola goizuetarrekin ibili bainaiz, oso errematatzaile ona eta atzean ere laguntzen duena. Orain ez dakit

nolako aurrelariak izanen ditudan».

Laister bere idoloak direnen artean ibiliko da leitzarra. «Errespetua denei diet, baina idolo bat aipatzekotan Retegi. Onena izan da eta hobenen artean dago oraindik. Atzetik ere oso pilotari haundiak daude: Beloki, Errandonea...». Euskadiko eskuz binakako txapelketa gehiegi segitu ez bado ere, irabazteko baditu bere faboritoak: «Retegi eta Lasa bikote gorra da». ■

TESTUA:
AITOR AROZENA
ARGAZKIA:
JOSEBA AZPIROZ

**MUEBLES
A METS**
mobleak orokorrean
BIDASOA Karrika 45-60 • Tfnoa: 948-630537 • BERA



**Sukalde mobletan
aukera zabala**



Polo

**Egunero
behar duzun kotxea**



Volkswagen

SAMPI ARAGON

Leitzako errepidea • © 450354 / 450759
D O N E Z T E B E

AGENDA EGUNEZ EGUN

BESTAK

DONEZTEBE

► **Ekainaren 27tik**
uztailaren 1era Xehetasunak gehigarrian.

ERRATZU

► **Ekainaren 26tik**
30era Xehetasunak 23. orrialdean.

ARIZKUN

► **Ekainaren 20tik**
24ra Xehetasunak 23. orrialdean.

SALDIAS

► **Ekainaren 20tik**
24ra Xehetasunak 19. orrialdean.

IKASTAROAK

ELIZONDO

► **Sendabelar ikastaroa** emanen du Laura Gurbindok ekainaren 16tik 27ra. 2.000 Pta

GAUPASAK

ZUGARRAMURDI

► **Ekainaren 21ean** Akelarre elkarteak antolatutako gaupasa. Antzerkia, *Kukumiku*, zanpantzarrak, txalaparta... Xehetasunak 24. orrialdean.

ERAKUSKETAK

ELIZONDO

► **Ekainaren 11tik**
28ra Arizkunenean, Juan Lameriñasen argazki erakusketa.

► **Ekainaren 11tik**
28ra Arizkunenean, Daniel Isturizen margo erakusketa. Guztiak, astelehenetik larunbatera, arratsaldeko 7etatik 9etara.

AGENDA PRAKTIKOA

BASERRIA



❖ ZERRIKIA ❖

- **Zerrikumea** (20 kilokoa): 6.300 pta.
- **Zerri gizona** (95-100): 220 pta./kilo
- **Zerramak**: 160 pta./kilo bizirik.



❖ BEHIKIA ❖

- **Aretze gizenak**
 - **Idixkoak**: Pzta./kg. Kanal
- | | | |
|-------|-------|-----|
| Extra | | 520 |
| 1.koa | | 490 |
| 2.koa | | 450 |

- **Urruxak**: Pzta./kg. Kanal
- | | | |
|-------|-------|-----|
| Extra | | 540 |
| 1.koa | | 500 |
| 2.koa | | 450 |

Oharra: Prezio hauek 300-340 Kg. kanalean dauzkaten idixko eta 200-250 kg. dituzten urruzentzako.

• Aretze tikiak

(15 egun ingurukoak):

Nabarrak: urruzak 15.000 eta idixkoak 24.000 Pta.

Mestizoak: urruzak 25.000 eta idixkoak 35.000 Pta.

Behi zaharrak:

Behi nabar gizona: 350 Pzta./Kg. Kanal. Behi garri ona: 390 Pta./Kg. Kanal.

DATU ITURRIA: EHNE

HAMABOSTALDIKO GOMENDIOA

Udalekuak

Udako oporrak ahalik eta hobekien probextu nahi izaten dituzte haurrek, eta Udalekuak aukera paregabea dira horretarako. Eskolaz kanpo ekintza desberdinak antolatzen dituzten taldeak sortu dira gure eskualdean, baina due-la urte gutti arte horrelako aukerarik ez zuten izaten hemengo haurrek.

Berako *Kaxerna*, Lesako *Txalaparta* eta Elizondoko *Kukux* aisialdi taldeek udaleku idekiak prestatu dituzte aurtengo udari begira, hau da, tailerrak, piztina, eskulanak, irteerak, jokoak eta beste sorpresa aunitz.

Aintzineko urteetan udalekuak arrakasta handia izan dutela erran behar da, haurren erantzuna oso positiboa izan delako eta gurasoak ere hagitik kontent agertu baitira. Bertzaldez, aisialdi talderik ez dagoen herrietan Euskara Zerbitzuek hartu ohi dute lan hori. Izan ere, eskolaz kanpo ere euskaraz aritzea baita Udalekuen helburu nagusienetakoa.



Gero eta gehiago dira Udalekuetan parte hartzera animatzen diren haurrak.

DISKAK



«Karpe Diem»

Joxe Ripiau
Esan Ozenki

Joxe Ripiau hirukoteak iraupen luzeko bigarren lana plazaratu du, *Karpe Diem* izenburupean. Iñigo Muguruza (ahotsa eta baxua), Jabier Muguruza (ahordeoia eta ahotsa) eta Sergio Ordoñezek (güiroa, bonboa eta ahotsak) hamahiru kantu osatu dituzte, aintzineko lanaren ildoari eutsiz. Berrikuntzarik ere bada ordea, musika tresnen aldetik lan hau

aberatsagoa baita. Perkusio eta haize musika tresnak baliatu dituzte oraingoan, Juanan Diez (tronboia) eta Angel Valdesen (perkusioak) laguntzaz.. Karibeko erritmoak, salsa, merengue, cumbia, raggamuffin, ska eta gisako doinuak aurki daitezke *Karpe Diem* honetan, gehientsuenak Iñigo Muguruzak berak konposatuak. Udarako freskagarri proposa.

Menopausia: Sintomak eta aholkuak

Menopausia hitza ezagun egiten zaigu denori, batzuri besteei baino gehiago, baina, zer erranahi du hitz horrek zehazki?

Menopausia, emakume guziek bizitzaren sasoi batean pasa behar duten fenomeno naturala da. Obarioak agortzen direnean emakumearen organismoarendako funtsezkoak diren hormona batzuk galdu egiten dira; estrogenoak.

Osteoporosia

Orduan hasten dira lehenbiziko sintomak nabaritzen, hala nola, arnasestuak, taupadak, logabezia, buruko minak, eta osteoporosia, bertzeen artean.

Azken honek, osteoporosiak alegia, hezurak kaltziogabetzen direla erran nahi du, hauskorrago bihurtuz. Estrogeno faltak, gainera, lumbago edota bularreko mina ekar dezake.

Arazo guzi hauen aurrean zer egin behar da?

Lehenbiziko eta behin, menopausia zentro batera jo



Menopausiaren sintomak logabezia, arnasestuak, osteoporosia, baginaren lehorteza...dira, besteak beste. Egunkaria

an, bertan azala eta hezurak ikertzeko.

Gaur egun, badago informazio aski menopausiaren sintoma desatseginak ekiditeko, hona hemen zenbait aholku:

*Menopausia,
emakume guziek
bizitzaren sasoi
batean pasa behar
duten fenomeno
naturala da.*

-Arnasestuak: Kotoizko arropa erabiltzea komeni da jauntzi sintetikoak baztertuz. Kafe eta alkoholik ez hartu. Oheratu aitzin ur epeleko dutxa hartu.

Taupadak: Pasakorrak dira, ez dute arriskurik.

Buruko minak: Arnasestuak, antsietatea eta estres orokorra sendatzean joanen dira.

Osteoporosia: Ariketa fisiko lasaia egitea gomendatzen da; yoga, igeriketa, ibilaldi luzeak...eta baita kaltzio ugari duten janak hartzea, esnea, gasna...eta janari oliotsuak baztertu, fibradunak aukeratu; barazkiak, irin osoko ogia...eta ahal den eta gatz guttiena hartu.

EGUNKARIAKO OSASUN GIDATIK
MOLDATUA

AGENDA EGUNEZ EGUN

MENDI IRTEERAK

BAZTAN

Ekainaren 22an
Baztan herriz herri egiten dute Baztango mendigoizaleek. Bazkaria Amaiurren.

BERA

Ekainaren 22an
Aralar-Txindokira joanen dira Larun Mendi Taldekoak.

Ekainaren 22an
mendi irteera egiten dute Agerra Mendi Taldekoek, Kandantxurat, handik Formigaleraino ibilaldia egiteko. Autobusa goizeko 5etan aterako da Agerratik, eta 1.500 pta kostako da.

SOLASALDIAK

ETXALAR

Ekainaren 27an eta uztailaren 18an
Bahá'í fedearen jarraitzaileek "Munduko Hiriritasuna" eta "Umeendako Hezkuntza Moralaren garrantzia" gaiei buruzko hitzaldiak emanen dituzte arratsaldeko 8etan, Basque erretegian.

GUARDIAKO BOTIKAK

061 Tfnora. deitu behar da


Ekainaren 16tik 22ra

Arantza, Sunbilla, Elizondo (Lezaun), Leitza eta Goizueta.

Ekainaren 23tik 29ra

Igantzi, Ituren, Elizondo (Iturralde) eta Goizueta.

LIBURUAK



«ARRAGOA»
Jon URRUJULEGI
TXALAPARTA

50 eta 60ko hamarkadetan dago girotua Goierri jai baina Donostian bizi den idazle honen bigarren eleberria. Nobela autobiografikoa da «Arragoa», eta autoreak berak erraten duenez, belaunaldi baten isla ere bai, gaur egun 40 urte inguru dutenek beren burua erreflejatuta ikusiko baitute liburuko pertsonaien baitan. Gerra ondoko elizaren prepotentzia, orduko PNVren inefekzia,

ETAren sorrera eta garai hartako beste zenbait gertakari ukitu ditu Jon Urrujulegik, euskararen egoera, feminismoa... Liburuaren ardatza abertzaletasuna da, baina liburuan agertzen diren pertsonai ugarien eguneroko errealitatea ere jorratu nahi izan du idazleak. Mota guzietako pertsonaiak daude, ahalik eta irakurle multzo haundienarekin identifikatzeko asmoz sortuak.

ETXEBIZITZAK

- 101. Saldu
- 102. Erosi
- 103. Errentan emateko
- 104. Errentan hartzeko
- 105. Etxe konpartituak
- 106. Bertzelakoak

GARAJEAK / LOKALAK

- 107. Saldu
- 108. Erosi
- 109. Errentan emateko
- 110. Errentan hartzeko
- 111. Bertzelakoak

LURRAK / ORUBEAK

- 112. Saldu
- 113. Erosi
- 114. Errentan emateko

zein erraza den zure anuntzioa hemen jartzea...

Hegoaldetik deitzeko 948-1pparraldetik 00-34-48

631188



...eta gainera, zure berri zonako etxe guzietan izanen dute!!

Sail honetan partikular, profesional eta merkatarien informazio eta zerbitzuen berri ematen da. **ttipi-ttapa** ez du bere gain hartzen dohainik argitaratuak diren iragarkien ondorioz sortzen ahal diren operazioen erantzukizunik.

- 115. Errentan hartzeko
- 116. Bertzelakoak

ZERBITZUAK

- 201. Hargin/Igeltseroak
- 202. Pintoreak

- 203. Elektrizistak
- 204. Iturginak
- 205. Zurginak
- 206. Mendi lanak
- 207. Garraioak
- 208. Bertzelakoak

LANA

- 301. Eskariak
- 302. Eskaintzak

IRAKASKUNTZA

- 401. Eskaintzak
- 402. Akademiak

MOTORRA

- 501. Salerosketak
- 502. Tailerrak

ANIMALIAK

- 601. Salerosketak
- 602. Emateko
- 603. Klinikak

DENETARIK

- 701. Galdu / aurkituak
- 702. Salerosketak
- 703. Bertzelakoak

HARREMANAK

ETXEBIZITZAK

101 SALDU

LESAKA. Pisua salgai. Lau gela, egongela, bainu eta sukalde. Terraza itxia. ☎ 637141.

BERA. Pisu eguzkitsua salgai. Sukalde, gela bat eta bi bainu moblezatuak. Bertze bi gela eta egongela moblezatu gabe. Ganbareekin. ☎ 630395.

BERA. Pisua salgai, Telefonicaren ondoan, trastero eta garajarekin. ☎ 631071.

LEITZA. Pisua salgai. Amazabal kalean, bizitzen jartzeko moduan. 8.500.000 pezeta. ☎ 234830.

LEITZA. Goiko errota salgai daukat. ☎ 510167.

BERA. Pisua salgai, Kanttonberri 3an, aszensorarekin. Hiru bainugela, egongela eta bainugela. Denak kanpoaldera ematen du. ☎ 943-630771 edo 943-631724.

ELIZONDO. M^a Azpilikue-ta karrikan 90 m²ko pisua eta 30 m²ko bajera salgai. Sukalde moblezatua, elketrogailu eta guzti. Hiru logela, egongela, bi komuna eta ganbara. ☎ 452185 (eguerdi edo arratsetan).

BERA. Borda salgai, 5.000 m²ko lur eremuarekin, Irun-gosolo parajearen. ☎ 630288 (gauetz).

ETXEBIZITZAK

102 EROSI

Borda erosiko nuke berdin da edozein herritan. ☎ 451841

ETXEBIZITZAK

105 ETXE KONPARTITUAK

BURLATA. Neska bat behar da pisua konpartitzeko. ☎ 581284 (bulego orduetan).

IRUÑEA. Neska bat behar da pisua konpartitzeko Txantrea auzoan. ☎ 510012 (gauetz).

GARAJEAK/LOKALAK

109 ERRENTAN EMAN

LESAKA. Lurrazpiko batjera errentan emanen nuke, Albistur karrikan. ☎ 637948.

LESAKA. Bittiria karrikan lokala errentan emanen nuke. 125 m². ☎ 637050.

LURRAK/ORUBEAK

112 SALDU

RAIZOZ. Lur eremu bat Ultzama urbanizazioan salgai. 800 m²koa. Urbanizazioerako zerbitzuak: Pizina, pilotalekua, futbolzelaila, tenis pista, jolastokia. ☎ 452185 (eguerdi edo arratsetan).

ZERBITZUAK

205 ZURGINAK

zimeldi

Sukalde eta bainurako armarioak

Zimeldi • ETXALAR
☎ 948-387017

LANA

301 ESKARIAK

27 urteko neska ardurasua eskeintzen da edozein lan seriotan aritzeko. ☎ 637749.

Beran haurrak zaintzeko 16 urteko bi neska eskaintzen dira. ☎ 630338 eta 631183.

Neska batek haurrak zainduko lituzke Lesakan. ☎ 627633.

Beran haurrak zaintzeko neska bat eskeintzen da. ☎ 630153.

Neska bat eskaintzen da interina bezala, edo adineko jendea zaintzeko edo jabetzetan asteburutan aritzeko. ☎ 580988.

MOTORRA

501 SALEROSKETAK

Jeep Cherokee salgai, NA-AC. ☎ 627628

Renault Trafic furgoneta salgai, bi hilabetekoa eta 3.000 kilometroekin.

ttipi-ttapa

Inprenta lanak egiten ditugu

- Kartelak
- Boletoak
- Faktura taloiak
- Bisita txartelak
- Aldizkariak
- ...

Behar duzuna momentu batean egiten dizugu; zure gustora diseinatu, inprenta desberdinekin preziorik hobereena negoziatu eta listo! Deitu lasai, eskatu aurrekontua eta ikusiko duzula!

☎ 631188

1.800.000 pezeta. ☎ 452431 (gaueko 9etatik aitzinera).

Campera mobileta salgai. 3.500 km, berria bezala. Prezio onean. ☎ 450691.

Opel Kadett GSI 2.0 kotxea salgai, hiru atekoa eta 1989koa. 500.000 pezeta. ☎ 637059.

Renault 11 1.6 Diesela salgai, 1985ekoa. 200.000 pezeta. ☎ 637059.

Yamaha YZ 250 motoa salgai, 1996 urtekoa. Berri-berria dago eta extra aunitzekin. ☎ 630766 (Jose M^a).

NISSAN BERABI tailerrak

Bigarren eskuko kotxeak:
Ford Fiesta XR2, NA-P
Nissan Patrol, NA-P
Seat 131 D, NA-M
Nissan Patrol Top-Line
Renault 11 D, SS-T

GANIX Tailerrak

Iurlandeta, 9 • ☎ 630669 • BERA

IBILGAILUEN MEKANIKA
ETA ELEKTRIZITATEA
FIAT Zerbitzua

BOAN TAILERRA

AUTO BERRIEN
ERAKUSKETA ETA SALMENTA
☎ 63 06 23 • BERA

Pirena arrazako behia sal-

AUDI SAMPI

Bigarren eskuko autoak,
furgonetak, 4x4ak
erosten dira.

☎ 45 03 54 • DONEZTEBE

MENDAUR MOTOR

☎ 450333 • DONEZTEBE

Bigarren eskuko kotxeak:
• Ibiza • Kadett 1.8i • Land Rover 109 • Peugeot 205 GT
• Astra caravan TD • Corsa eta Clio Diesela.
• Suzukiak: Samurai eta Vitara

ANIMALIAK

601 SALEROSKETAK

gai, bere aretxearekin. ☎ (943)528185 (eguerditan).

Hiru "pavo real" arrak salgai. ☎ 510294.

Miga bat eta bi txekor salgai, blonda bata eta limusina bertzea. ☎ (943)528185 (eguerditan).

Bi ahari salgai, mutur gorria bata eta mutur beltza bertzea. ☎ (943)528185 (eguerditan).

ANIMALIAK

602 EMATEKO

Katukumeak oparitzen ditut. ☎ 637891.

Hiru hilabeteko **arratoi-zakurra** oparituko nuke Leitzan. ☎ 610686.

DENETARIK

702 SALEROSKETAK

Bi traktore remolke salgai. 3,80 x 1,80 metrokoa bata, eta 2,60 x 1,40koa bertzea. Belar mozteko lama, traktorearekin ibiltzekoa ere salgai. Deitu larunbat eguerdiko 2etan edo arratsaldeko 8etatik 10etara. ☎ 948-393054.

Autokargadora salgai, "Comesa" markakoa. ☎ 610746.

Akordeoa salgai, Borsini markakoa. Piano teklatura, 120 baxu eta estutxea. 125.000 pezeta. ☎ 631368.

Akordeoa salgai, Borsini markakoa. SL-4117-M, 120 baxu eta 4 ahots, estutxearekin. 250.000 pezeta. ☎ 631368.

Garajeko ate baskulantea salgai. 2,90m altura eta 3,58 zabal. ☎ 943-621156 (arratseko 9etatik 10etara, Juan-txo).

STHIL desbrozadora salgai, bigarren eskukoa. Motxiladuna, emakumeek erabiltzeko hagitz egokia. Pita eta kuxtillarekin. ☎ 387017.

HARREMANAK

801 AGURRAK

Azpilkuetako Jose Ortega eta Rozio Juradori (jiuu): Ez toreatzeari utzi eta behingoz zure "tres bell" Roziorekin ezkontzen zaren. Rozio: Horrenbestetaxista modura ibili beharrean, bidali zuen inbitazioa. Guk jadanik gure soineko arrosa eta kristoren pame-la prestaturik daukagu. Azpilkuetako piztiak.

Urki M: Munduan dagoen mutilik onena zara.

Iruitako Laura S.ri: zergatik zaude gurekin haserre? Zuk dakizun bi neska.

Doneztebeko Maria Murtuberriri: zorionak Amets, Maider Bidegain eta Leiren partez.

Doneztebeko hilehori bantentzat: laz Sunbillako bestetan ezagutu eta hizketan egon ginen nahiz eta aspalditik agurtu. Joan zen aste santuan berriz elkar topatu genuen. Ea aurten Doneztebeko bestetan ikusten garen. Nahi baduzu, larunbatean (28) ordubiterditan toki berean. J.

Lesakako Corpus Anzizar: Zorionak (ekainak 19) lan-kideen partez. Egun on bat pasa eta kontu eman txanpainarekin.

Leitzako J.ri: Baietza eman aurretik, zure izena eta abizena eman. Saioa Diosdorendoren partez.

Urdazubiko Arantxa Alzuyeti: zorionak ekainaren 17an 16 urte bete dituzulakoz. Zugarramurdiko lagunen partez.



TTIPI TXARTELA

Euskara eta gure herrietako garapen ekonomikoa uztartzeko erreminta

TTIPI-TTAPA FUNDAZIOA saltzen ari den txartela erosiz gero, gauza aunitz lor dezakezu: deskontuak klase guzitako komertzioetan, TTIPI-TTAPA aldizkaria eta laster sortuko den euskarazko telebista diruz lagundu, eskualdeko dendak eta barne ekonomia bizkortu...

ESKATU BAT ZURETZAT

✂

Izen-deiturak

Helbidea

Telefonoa

☎ **631188**

Begoña Pikabeari zorionak bere 25. urtebetetzean. Zure kuadrila bazkari eder baten esperoan iza-

nen duzu. Merkeak izanen gara.

Elizondoko Joxe Martin: potxolada bat zara.

Argazkiak berreskuratu nahi badituzue, bidali zuen helbidea eta sellosa ere, edo nahiago badituzue pasatu gure bulegotik.



Isabel Etxe-beste Zayas lesakarrak 8 urte beteko ditu uztailearen 3an. Muxu haundi bat familiaren partez.



Jose Ignacio Olazar Apeztegia elgorriarrak 34 urte beteko ditu ekainaren 16an. Zorionak, emaztea, Xabier eta Olaia.



Imanol Calderón beratarak 8 urte eginen ditu ekainaren 27an. Zorionak zure gurasoen eta anaiaren partez.



Jaione Elgorriaga alkaigatarrak 20 urte beteko nahiko lituzke, bainan orain dela 4 urte beteko zuten, ekainaren 14an. Zorionak! "Ja"



Leire Inza Lekuona lesakarrak 18 urte beteko ditu ekainaren 26an. Zorionak familiaren partez.



Santi Etxeberria Astiz oronoztarrak urtea beteko du maiatzaren 25ean. Zorionak!



Miguel M^a Ariztia ekainaren 11n beteko dituzte. Zorionak, eta kontuz bestekin adin horretan!



Mari Azkarrak urteak beteko dituzte ekainaren 3an. Zorionak herrikoen partez. Hemendik aurrera "Don Puente"z bezitu beharko.



Jaione Elgorriaga Garbisu alkaigatarrak 24 urte beteko dituzte ekainaren 14an. Auniz urtez, Xabier, Andrea eta Zalainzokoko 3M.



Maitane Marezkurrena Ziganda leiztarrak 4 urte beteko dituzte ekainaren 1ean. Zorionak, Aita, ama, Garbife eta Saioa



Ignacia Tellexea Urrutia arraioztarrak 31 urte beteko dituzte ekainaren 14an. Zorionak bere emaztea eta bi semeen partez.



Jasone Goienetxe Maritxalar leiztarrak 3 urte beteko dituzte ekainaren 3an. Zorionak gurasoen partez.



Unai Torres Indakoetxeak 10 urte beteko dituzte ekainaren 16an. Zorionak bere gurasoen eta J.M.ren partez. j3



Asier Ariztegi Juanena lantztarrak 10 urte beteko dituzte ekainaren 11n. Zorionak eta muxu haundi bat familiaren partez.



Jose Manuel Goñi oiztarrak 23 urte beteko dituzte ekainaren 26an. Zorionak eta besarkada bat zure iloba eta familiaren partez.



Maria Eizagirre elgorriarrak ekainaren 6an beteko dituzte 20 urte. Zorionak zure lagunaren partez.



Paula Jerez elgorriarrak 20 urte beteko dituzte ekainaren 16an. Zorionak zure lagunaren partez.



Iñaki Lizarrondo igantziarrak 30 urte beteko dituzte ekainaren 17an. Zorionak eta muxu haundi bat familiaren partez.



Raul Garcia beratarak 23 urte beteko dituzte ekainaren 8an. Zorionak zure koadrillakoen partez.



Aitor Garmendia Iparragirre beratarak 4 urte beteko dituzte ekainaren 11n. Zorionak, aita, ama eta Josebaren partez.



Joseba Garmendia Iparragirre beratarak 7 urte beteko dituzte ekainaren 17an. Zorionak, aita, ama eta Aitorren partez.



Julen Gil Barquilla donostiarak 3 urte beteko dituzte ekainaren 6an. Zorionak eta muxu bat Iraitz, Patxi eta Garbiferen partez.



Koro Irazoki zugarramurdiarrak urteak beteko dituzte ekainaren 27an. Zorionak familia eta lagunaren partez.



Jose Antonio Sola lesakarrak urteak beteko dituzte ekainaren 15ean. Zorionak admiradora batzuen partetik. gurasoen partez.



Ivan Mañeru Jimenez lesakarrak 12 urte beteko dituzte ekainaren 22an. Zorionak David, Estibaliz eta gurasoen partez.



Rocío Palacin Barroso lesakarrak 4 urte beteko dituzte ekainaren 21ean. Zorionak zure lehengusuen eta familiaren partez.



Sonia Gallego Argudin behobiarrak maiatzaren 4an beteko dituzte 4 urte. Zorionak lardingoen lagunaren partetik.



Anastasio Gilenea Goienetxe elizondarrak urteak beteko dituzte ekainaren 28an. Zorionak familiaren partez.



Ainhoa Etxe-beste Azkarate lesakarrak urteak beteko dituzte uztailearen 18an. Zorionak aita eta amaren partez.



Kristina Etxe-beste Azkarate lesakarrak uztailearen 3an beteko dituzte 5 urte. Zorionak gurasoen partez.



Martina Maia Olaetxea lesakarrak urteak beteko dituzte ekainaren 29an. Zorionak eta muxu haundi bat familiaren partez.



Ainhoa Iturralde Gortari arizkundarrak 13 urte beteko dituzte ekainaren 17an. Zorionak eta Arraiozko familiaren partez.



Garikoitz Laretxea Gortari arraioztarrak 7 urte beteko dituzte ekainaren 18an. Zorionak guraso eta anaiaren partez.



Endika Larraide Olazar elgorriarrak urteak beteko dituzte ekainaren 19an. Zorionak eta muxu haundi bat familiaren partez.



Antonio Etxaide urdazubiarrak urteak beteko dituzte ekainaren 16an. Zorionak Bera eta Urdazubiko lagunaren partez.



Bianditz NARBARTE Eskudero goiztarrak 7 urte beteko dituzte ekainaren 16an. Zorionak eta musu haundi bat. Etekoak.



Amaia Irastorza Alzugarren beratarak 16 urte beteko nahiko lituzke, baina duela 4 bete zituzten. Zorionak. Familia eta koadrila.



Jon Irazoki Zelaia beratarak 8 urte beteko dituzte ekainaren 26an. Zorionak eta ona pasa zure lagunaren partez.



Amaia Biurra Ubiria lesakarrak urteak beteko dituzte ekainaren 24an. Zorionak eta muxu haundi bat familiaren partez.



Iratxe Esparza Txuekak 4 urte beteko dituzte ekainaren 20an. Zorionak Lucio, Fermina, Xabier, Jaione, guraso eta Enekoen partez.



Julen Oteiza Almandoz aranztarrak 5 urte beteko dituzte ekainaren 21ean. Zorionak zure famili guztien partez.



Miren Indakoetxea Perurenak 22 urte beteko dituzte ekainaren 21ean. Zorionak etxekoen eta zure lagunaren partez.



Imanol Baribar Arratibel aresoarrak ekainaren 15ean egin dituzte 5 urte. Zorionak guraso eta arrebaen partez.



Nerea Valverde Ugalde 23 urte eginen dituzte ekainaren 21ean. Zorionak bere bihotzeko azukre koskorren partetik.



Jose Antonio Iriarte sunbildarrak 53 urte beteko dituzte ekainaren 30ean. Zorionak zure lagunaren partez. Aupa Iriarte!



Oier Apeztegia Ruiz goiztarrak 6 urte beteko dituzte ekainaren 26an. Zorionak Jon eta gurasoen partez.



Bera.
• Etxe berria salgai, 3.500 m²rekin.



Etxalar. • Herritik 10 Km.tara, baserri eder bat bere terrenoarekin.



Bera. • Matxako ostatuaren gaineko bigarren pisua salgai, erabat berritua. 12.000.000



ADOS

Julian Izura Nuin

Telefonoak: 451841 • 908.77.86.53 • Parrokia 9, bajeran
Lekuz aldatu gara!!!



Doneztebe. • Aparanen 75m²ko pabilioi industrialia salgai. Azkena.




Narbarte. • Pisua salgai, bere baratzearekin.



Elgorriaga. • Pisua, garaje eta ganbararekin salgai. 13.000.000 negoziagarriak.



Elgorriaga.
• Etxe adosatua salgai. 13.500.000. Aukerakoa.



Bera. • Lau logelako pisua salgai, kanpoaldera begira. 15.000.000. Igoailua eta trasteroa.



Narbarte. • Pisua salgai.

Haritzeko sukaldea eta berogailua. 7.700.000 Pta.



Bera.
• Eguzki kafetegia salgai. Gainera etxeko etxebizitzak ere bai.



Mugairi. • Pabilioi industrialak salgai. 43.000 pta/m²tik goiti.



Mugairi. • Pisu hagitz eguzkitsua salgai. 8.500.000.



Goizueta.
• Borda salgai, ura eta argiarekin.

AMAIUR

DONEZTEBEko sarreran ☎ 948.450400



Herriko Besta alaituak



**BESTA
ZORIONTSUAK !!**

GANI

NAFARROAKO AURREZKI KUTXA